

TOLOSALDEKO HERRI ALDIZKARIA

# Galtzaundi

**ESKUALDEA:** Lasa eta Zabalaren kasua berreraikitzen »» Arantxa Garaiburu gaztagintzaren sekretuak azalduz **GIZAKIARI BEGIRA:** Sinismen irrazionalak »» **KULTURA:** Alurren Sua ikuskizun berria **KIROL SALTSA:** TAKE saskibaloitza taldea ereindako hazitik uzta jasotzen

**ELKARRIZKETA:** Jose Mari Otermin kazetari eta herri ikerle amezketarra



*Aldaba eta Urkizu  
berpizten*



# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeakoak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)




## OÑATIBIA estética

Goza ezazu une batez

Pablo Gorosabel, 7 - Telf.: 943 536 971 - 20400 Tolosa

- AURPEGIKO TRATAMENDUAK**  
Eskuz emandako masaien bidez eta modu elektroestelakoekin egindako tratamenduak:  
• 24 kaluzeko injezio tratamenduak  
• Aurpegiko garbitasuna  
• Mantentze-tratamenduak  
• Flash-ak  
• Hidratzio sakonerrako tratamenduak  
• Nutrizio-tratamenduak  
• Lifting-ak  
• Zuntzen aurkako tratamenduak  
• Oxigenazio-tratamenduak  
• Alusaren aurkako tratamenduak  
• Pigmentazioak ezabatzeko tratamenduak  
• Begiko tratamendu bereziak  
• Agitasun beretiko tratamenduak
- MOMENTUZKO BELTZARAN-KOLOREA**  
• Aurpegiko, goiputz osoko osoko zaitaketa
- BEGIEN APAINKETA**  
• Beteleen kizkurtzea  
• Beteleen tintoa  
• Bekainen tintoa
- ILEAREN DEKOLORAZIOA**  
• Aurpegiko, goiputz osoko osoko zaitaketa
- OIN ETA ESKUEN ZAINKETA**  
• Simplea  
• Osoa  
• Amonikama  
• Funtzosa  
• Parafina bitza  
• Parafina berrua  
• Azazkal artifizialak
- MAKILAJEA**  
• Egunkoak  
• Festak  
• Erkoingaiak  
• Arguzkiak  
• Automakilaje ikastaroak
- DEPILAZIOAK**  
Auzizari berria edo epelarekin  
• Aurpegiko eta goiputzkoak  
• Ile-ahulazko tratamenduak  
• Fotodepilazioa neski gabelara jupitak-arguzki 999 erretin-barikozko 299 erretin-arguzki-berria
- MIKROPIGMENTAZIOA**
- SLIM BODY ARGALTZE ETA MOLDEKATZE**  
(Lipoasuturaren alternatiba)
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA**
- AZALAREN DAWDIA GNOSTIBIDA**
- EDERTZE OSORAKO FORFAIT BEREZIAK**



## aldama\_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel. 943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)

## NUTRIZIO AHOLKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA  
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERREZIKETA  
HELDUAK ETA HAURRAK



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea, 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: [galtzaundi@galtzaundi.com](mailto:galtzaundi@galtzaundi.com)  
Webgunea: [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegiebartea, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Ansti, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez, Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.



**bai euskarari**  
zerbitzua eta lana euskaraz



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

### IRITZIAREN LEIHOA

- Ibon Artola: Langileek soilik defendatu dezakete beren lanpostu eta soldatak
- Elixabet Izagirre: 33 urte ez al dira nahikoak?

4-5 orrialdeak

### NORMALIZAZIO ATALA

- Zerberri.com euskarazko albiste bilatzailea.



6. orrialdea

### ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Joxi Lasa eta Joxean Zabalaren desagerketaren 25. urteurrena
- Arantxa Garaiburu gaztagileari elkarriketa

12-15 orrialdeak

# Galtzaundi 289

2008ko azaroaren 7a

Iritziaren Leihoa: Ibon Artola eta Elixabet Izagirre.....4-5  
Eskualdeko albisteak:  
Joxi eta Joxean desagerketaren 25. urteurrena .....10-11  
Arantxa Garaiburu gaztagileari elkarriketa .....12-13  
Gizakiari begira: Sinesmen irrazionalak .....16  
Kultura: Alurr dantza taldearen *Sua* ikuskizunaz .....20-21  
Kirol Saltsa: TAKE taldea denboraldi hasieran .....22-23

### ERREPORTAIA

Aldaba eta Urkizu auzoak biziberritzeko lanean



7-11 orrialdeak

## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

17-19. orrialdea

### ELKARRIZKETA

“Sei edo zortzi liburur idazteko gaia badago. Orain Fernando eta bere garaiaz ikertzen ari naiz. Artxiboetan lanean ari naiz. Pernandok Igaratzako istihuetan izan zuen partaidetza argituko didaten agiriaren zai nago”.

- Jose Mari Otermin Kazetaria eta herri ikerle amezketarra



## LANGILEEK SOILIK DEFENDATU DITZAKETE BEREN LANPOSTU ETA SOLDATAK!!

### IBON ARTOLA

Euskal Herria Sozialista Aldizkariko kidea

Azken urteetako hazkuntza ekonomiko-anbanku eta enpresa handiek ikaragarriko irabaziak izan dituzte. Hala ere, langileen baldintzek, nahiz eta hazkuntza ekonomikoan egon okerrera egin dute. Eta orain, krisi ekonomikoarekin, kapitalistek langileen eta hauen familien gainera bota nahi dituzte ondorio guztiak: kaleraketak, soldata murrizketak, zerbitzu publikoen pribatizazioa, prekarietatea, langileen eskubideekin amaitzeko lan erreformak, pentsioen sistema publikoaren aurkako erasoak...

Munduko gobernu ezberdinek mota guztietako planak egin dituzte krisiari aurre egiteko. Baina orain arte hartutako neurri guztiak kolore berdinekoak dira: bilioika euro oparitu bankuei eta denon dirua kapitalisten irabaziak mantentzeko erabili. Mundu osoan bezala Euskal Herrian ere hainbat lagunek hipoteka ezin ordainduak zer axola die Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari? Diru laguntzak hauei eta langabezia geratukodirenei eman beharrean, berriro ere aberatsenentzat joan dira.

Zapateroren Gobernuak 150.000 milioi eman dizkie Estatu Espainiarreko eta Hego Euskal Herriko bankuei. PNVren laguntza ezinhobearekin PSOEek aurrera atera dituen aurrekontuekin konparatzen baditugu datu hauek, ikusiko dugu zenbaterainoko diferentziarekin zaintzen dituzten goiko eta beheko herritarrek. Estatu osoan, 2009 urterako, 19.000 milioi euro soilik onartu dituzte langabeziaren aseguratuko. Noski, Euskal Herrian langabezia geratuko diren milaka herritarrentzat ez da nahiko diruegongo, jada banku jabeen poltsikoetan baitago.

Zer egingo dute bankuek diru honekin? Burbuila espekulatiboarekin irabazi beldurgarriak lortu ondoren, dirulaguntza hauek espekulatzaile handiekin dituzten konpromisoei aurre egiteko erabiliko dituzte eta ez ekonomia berpizteko, komunikabide batzuk dioten bezala. Nondik aterako dituzte gobernuak diru laguntza hauek? Gizarte gastuak murriztuz, langileen zergak handituz eta langabezi sorospena murriztuz. Kapitalisten interesak de-

fendatzeko neurri kapitalistak besterik ez dira bankuen aldeko laguntza hauek.

Krisi egoeratan, kapitalisten bihotza ez da biguintzen, izatekotan alderantziz. Euren irabaziak ezerengaitik egon behar dute eta hurrengo hilabeteetan helburu hori aurrera eramateko langileentzat oso gogorak izango diren neurriak hartuko dituzte: soldata murriztu, langileen esplotazioa intentsifikatu eta "negozio mailaren arabera lan plantilak egokitu", hau da, langileak kalera bota. Kapitalistek, izoztu egingo dituzte euren inbertsioak eta irabaziak emango dizkieten sektoreetan espekulatzen jarraituko dute. Azken aldian etxebizitzan espekulatzaile elikagaiekin espekulatzaile pasa dira, hori izan delarik elikagaien prezioak igotzearen arrazoi nagusietako bat.

Eraso guzti hauei aurre egiteko sindikatuek lan asko egin beharko dute. Langileen, langabetuen, negozio txikiak dituztenen, nekazari txikien, herritar xeheen... pazientzia amaitzen joango da. Irtenbide bakarra langileen borroka da. Ezin dugu

*"Irtenbide bakarra langileen borroka da, langileok elkartu egin behar dugu"*

onartu soldata murrizketarik, langile bakar baten kaleraketarik, prekarietatearen handitzerik... borrokarik, mobilizaziorik edo grebarik antolatu gabe. Une honetan Jasoko langileak borrokan ari dira enpresak egin nahi dituen kaleraketen aurka eta zoritxarrez ez dira hurrengo garaletan antzekoak edo okerragoak izango diren kasuak faltako. Beharrezkoa da gainera fabrika bakoitzeko gatazka beste fabriketara, herrietara eta auzoetara zabaltzea. Langileen indarra batasunean dago. Langileak elkartzen badira enpresariak jai dute.

Euskal Herria Sozialistak krisi ekonomikoaren aurka eta langileen aldeko hitzaldiak antolatuko ditu azarorako. Gure helburua langileen batasuna bultzatzea da, langileak eta herritarrek gertatzen ari denaz informatzea eta langileen borroka, mobilizazioak eta grebak bultzatzea. GREBA OROKORRAREN beharra defendatuko dugu, SOZIALISMOAREN alde borrokatzearen beharra, GORA LANGILERIA!!



## 33 URTE EZ AL DIRA NAHIKOAK?

### ELIXABET IZAGIRRE

Tolosaldea Sahararekin taldeko kidea

33 urte luze igaro dira 1975eko urriaren 31tik. Egun hartan Maroko eta Mauritaniak Mendebaldeko Sahara indarrez hartu zuten, baina ez zeuden bakarrik orduko Espainiar gobernuak lagundu baitziren.

Egun hartan Marokok eta Mauritaniak saharar biztanleak beraien lurretik indarrez bidali zituzten napalm eta fosforo zuriarekin bonbardatu. Ordurako Espainiak deskolonizazio prozesua hasia zuen Sahara independentziaren bidean jarritz, baina bere erantzunkizunetik ihes egin zuen.

Ordutik, saharar biztanleria, 2700 kilometrotako harresi batek zatitzen du. Alde batean bonbardeaketetik ihes egin ahal izan zutenak daude, eta beste aldean aldiz, bertan harrapatuta geratu zirenak.

Familia ugari zatiturik geratu ziren, horrela badira 33 urte hauetan ikusi ez diren senideak edota oraindik ezagutzen ez direnak.

Mendebaldeko Saharan geratu zirenak egun Marokoren okupazio zuzenaren baitan bizi dira. Euren eskubideen alde borrokatzen dute, ez dituzte injustiziak

onartzen eta edozein motako terrorismoa gaitzesten dute. Bertan saharar ikurra erakustea debekaturik dago, independentzia errebindikatzeak errepresioa, torturak eta kartzela dakar. 500 pertsonatik gora daude desagerturik edota Marokoren esku dauden ezkutuko kartzeletan. Ia egunero izaten dira protesta pazifikoak eta ondorioz ia egunero gertatzen dira espetxeratze edota torturak, baita hildakoak ere.

Ihes egitea lortu zutenak, egun Aljeriak utzitako lur zatian bizi dira Tindouf inguruan. Ezerezetik herri bat sortu, eta bertan kokatu dira saharar errefuxiatuen kanpamenduak. Gaur egun, etxebizitzak, eskolak, udal txak, ospitaleak... badituzte bainan bertan bizitzeko behar beharrezkoa dute kanpoko laguntza. Hau gabe ezinezkoa litzateke egunerokotasunari aurre egitea. Urtetik urtera ordea, laguntzen gutxitzearen ondorioz, biziraupena zailagotzen doa.

Eta guzti honen aurrean zer egingo du orain dela 33 urte arte Espainiar lurraldea izandakoaren alde Espainiar gobernuak?

Diktadura frankistaren ondoren egon diren gobernu ezberdinak NBerekin bat egin dute Sahararen arazoa konpontzeko intenzioz. ZPren gobernuak arazoa konpontzeko beharrezko guztia egingo zuela hitz eman zuen, baina ondoren Marokoren eskutik joan da, ezkutuko edota ez hain ezkutuko tratua direla eta.

Azken urte eta erdian Saharar herriaren berezko ordezkari duen Fronte Polisarioaren eta Marokoko gobernuaren artean NBEn babespean bake elkarrizketak, non Marokoko gobernuak bere interesen arabera zaintzapeko autonomia bat eskeintzen zuen, huts egin dute herrialde alaitaren itxikeriaren ondorioz. Mendebaleko Sahararako NBEn ordezkari berezia, Peter Van Walsum jauna, berriz, Fronte Polisarioak eraginda, bere dimisioa aurkeztu behar izan du orain arte NBEak babestutako jurisprudentziak, hau da Autodeterminazioa eta Independentziaren aukerak, errealistatzen ez jotzeagatik.

Testuinguru honetan, EEBBetako estatu idazkaria, Condolezza Rice anderea, Irailaren hasieran Alje-

*"EEBBetako estatu idazkaria, Condolezza Rice anderea, Irailaren hasieran Aljerian eta Marokon izan zen eta 'autonomia' plana ezeztatu zuen arazoa konpontzeko. Bainan, aldi berean, Mendebaldeko Sahararik petroleoa ateratzen dihardu."*

rian eta Marokon izan zen eta "autonomia" plana ezeztatu zuen arazoa konpontzeko. Bainan, aldi berean, Mendebaldeko Sahararik petroleoa ateratzen dihardu.

Eta zer egingo dugu guk, herritarrok, egoera honen aurrean? Askok eta askok beste alde batera begiratu. Beste askok 33 urte asko direla pentsatu, baina zer egin ez dakitela bere horretan geratu. Aldiz, lagun asko gure esku dagoena egiten saiatzen gara urte bat gehiago pasa ez dadin.

33 urte nahikoak direla pentsatzen dugulako: AUTODETERMINAZIOA ETA ASKATASUNA SAHARAR HERRIAREN-TZAT!!

**ZETA**<sub>s</sub><sub>i</sub>  
MUNTAKETA  
ELEKTRIKOAK  
Usabal z/g - 23. postakutxa  
20400 TOLOSA  
Tel.: 943 672 728  
Faxa: 943 673 219

**IG** **GORRI**  
Paper manipulaziorako makina eraikuntza  
Konponketa eta mantenimenduak  
Apatxa industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA  
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

**Alaia**  
kafetegia  
Gudari kalea, 10 - TOLOSA  
Tel.: 943 652 643

**ARALAR KIROLAK**  
Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

**IRASTORZA GARRAIOAK**  
Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea  
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxa: 943 671 865

## Zerberri.com euskarazko albiste bilatzailea

ERABILTZAILA EUSKALDUNENTZAT NEURRI-NEURRIRA EGINDAKO BILATZAILA.

Erredakzio Batzordea

**L**ehenago ere Interneteko beste egitasmo batzuk landu dituzten Gorka Julio eta Haritz Rodríguez kazetariak dira Zerberri.com albiste bilatzaile aurreratuaren sustatzaileak. Bildu.net, Euskaltube.com eta Txio.net bezalako webguneen sortzaileak dira.

Zerberri.com, Google bilatzailean oinarritutako tresna bat da. Jakina da, bilatzaile haundi honek, hainbat hizkuntzatan eskaintzen duela albisteak bilatzeko zerbitzua, GoogleNews bezala ezaguna dena, alegia. Baina, orain artean, Googlek ez du euskarazko albisten bilatzailearik garatu.

Gaztelaniaz, esaterako, 700 iturrik eskaintzen dituzten albisteak bilatzen ditu Google-ren tresnak, frantsesez eskaintzen dituzten albisteak 500 dira eta ingelesez eskaintzen dituztenak berriz, 4.500. Zerberri.com bilatzaileak, momentuz,

**Euskarazko bilatzaile berria zerberri.com da. Euskarazko albisteentzako bilatzaile honek, hizkuntzarekin batera, iturrien aurretizko hautaketa eta denbora tartearen arabera bilaketa ditu ezaugarri nagusi.**



100 albiste iturri inguru arakatzeko ditu, guztiak euskaraz direlarik.

Iturrien aurretiazko hautaketa eta denbora tartearen arabera bilaketa dira, hizkuntzarekin batera, Zerberri-

com webgunearen ezaugarri nagusiak. Alegia, bilatzaile honek, alde aurretik hautatutako iturri euskaldunetako emaitzak eskaintzen ditu soilik. Bilaketa kronologikoak egiteko aukera ere eskaintzen du: az-

ken 24 ordutan, azken astean, azken hilabeteetan, azken hiru hilabeteetan, azken sei hilabeteetan, azken urtean eta edonoiz.

### PROPOSAMEN BERRIAK

Sustatzaileek, tresna honekin euskarazko Internet sarea-ri egindako ekarpena azpimarratu dute eta honek, albisten bilaketak egitea ahalbidetzen duela jakinarazi nahi izan dute. Zerberri.com webguneak, momentuz, 100 iturri inguru arakatzeko ditu arren, aurrerantzean albiste iturri gehiago ere gaineratuko dituztela jakinarazi dute arduradunek. Horretarako, iturri berriak proposatzeko deia luzatu dute, webgunean horretarako prestatu duten txokoaren bitartez.

Bestalde, epe laburrean beste egitasmo batzuk ere aurkeztuko dituztela iragarri dute, baina ez dute oraindik xehetasun gehiago eman. Bien bitartean, internauta euskaldun guztiak animatu dituzte Zerberri.com bilatzailea erabiltzera. ■

# antza



Aldaban 75 biztanle bizi dira 3 auzotan banatuta: Uganen, Aldaba erdigunean eta Aldaba Zaharren. Irudi hau Aldaba erdiguneko da.

## Aldaba eta Urkizu auzoak biziberritzeko lanean

TOLOSAKO UDALAK HITZARMENAK SINATU DITU URKIZU ETA ALDABAKO AUZO ELKARTEKIN AUZOAN DITUZTEN BEHARRAK KONPONTZEKO

Leire Zubeldia

**I**tsasmendikoik diseinatutako egitasmoa da Bepiztu. Eta egitasmo hau Aldaban eta Urkizun aplikatzearen proposamena Tolomendirena. Azken hau Udalarekin jarri zen harremanetan eta egitasmoa aurkeztu zion. “Udaletxeak harrera ona egin zion proposamenari. Ikusten zuten ezin zituztela auzoetako eskara guztiak bideratu eta lanean hasteko erramienta egokiaren bila ari ziren”, azaldu du Arrate Iturbe Tolomendiko teknikariak. Bepiztu egitasmoa landa eremuetako dinamizazio programa bat da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako toki ezberdinetan aplikatu da. “2002

**Izaskun, Amarotz, Montesku edota San Esteban bezalaxe, Aldaba eta Urkizu Tolosako auzoak dira. Azken bi hauek ordea, Bedaiorekin batera, badute aipatutako auzoen aldean ezberdintasunik: Landa eremuko auzoak dira eta herrigunetik urrun daude. Horregatik, Aldaba eta Urkizu, Bedaiorekin batera, azken urteetan “ahaztuta” egon direla esan daiteke. Are gehiago, tolosar askok ez ditu oraindik auzo hauek ezagutzen. Antolaketa eta zerbitzu aldetik atzean geratu dira ondorioz, eta gaur egun oinarri-oinarrizko beharrak dituzte. Horiek konponbidean jarri eta biziguneak dinamizatzeko Bepiztu plana jarri dute martxan Aldaban eta Urkizun. Bedaion prozesu bera egin zen aurreko urteetan.**

urtean, Langa izenarekin Bepiztu eta Elduainen gauzatu zen egitasmoa”. Bedaion ere ezagutzen dute Bepiztu programa eta orain Aldaba eta Urkizuren txanda iritsi da.

Aldaba Tolosatik 10 kilometrotara dago. Hiru auzo txikietan sakabanatzen dira bertako biztanleak: Ugane auzoan (Ikaztegiatik sartuta), Aldaba erdigunean eta Aldaba Za-

harren (Alegiatik sartuta). Guztira 75 bizilagun ditu. Urkizu ere hiru eremutan dago banatuta. Urkizura bidean dagoen Auzo Txiki, muinoan kokatuta dagoen Urkizu erdigunea eta Albizturko lurretan kokatuta dauden baina bizia auzoan egiten duten baserri multzoa.

### AUZO BIZIBERRITZEAREN BEHARRA

“Jendea konturatu da, mugitzen ez bagara auzo amaitu egingo dela. Zerbait egiteko azkeneko trenaren azkeneko bagoian gaude”. Honelaxe adierazi du Aldabako Jose Ramon Emanaldek. Auzotarrak

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

egoera larri horren kontzientzia badutela azpimarratu du eta horregatik, denak daudela lanerako prest. Izan ere Aldaba geldirik egon da azkeneko 30 urteetan eta ez dabilen harriari goroldioa egiten zaio. “60. hamarkadan, auzotarrek auzolanean eraiki zituzten frontoia, eliza eta apaizetxea. Geroztik ezer ez da egin aldaban. Baserrietan, lehen hiru edo lau seme bizi ziren, gaur egun baserri bakoitzean seme edo alaba bakarera geratu da”. Honela, gazteek Aldabatik alde egin dute eta kanpotik inor ez da etorri. “Duela 30 urte inguru izugarritzako beheraka-

da izan zuen biztanlegoak. Orduan, Aldaba Zaharren bizi zirenak, orain Aldaba osoan bizi garenak baino gehiago ziren”. Beherakada haren ondoren, azken hamar urte hauetan Aldabako biztanlegoa mantendu egin da.

Urkizuko biztanlegoak aldiz, ez du horrenbesteko gorabeherarik izan. Arantxa Sorrondegi, Alur Txiki Auzo Elkarte idazkaria, duela zortzi urte etorri zen Urkizura. “Ni hemen nagoenetik biztanle kopurua hazi egin da, haur dexente jaio baitira”. Pello Ezeiza eta Sorrondegiren hitzetan, Urkizuk duen ahulgunea auzotarren arteko elkartasun falta da. “Bakoitza bere etxean sartuta egoten da. As-

kok ez dugu elkar ezagutzen ere. Autoan goazela gurutzatzen gara, baina hortik aurrera ezer ez”, dio Sorrondegik. Urkizu astindu egin nahi dute gainean duen hautsa kentzeko. “Hemen ez dago ezer, ez helduentzako ez gazteentzako eta ezta haurrentzako ere”.

### HARRERA ONA BI AUZOETAN

Aipatutako arrazoiengatik bi auzoetan gustura hartu zuten Tolomendiren proposamena. Egitasmoa aurkezteko, bi auzoetan bilera bat egin zen duela urte bete inguru, auzoko biztanleak, Tolomendiko teknikariak eta Udaletxeko ordezkariak bildu zirelarik. “Ez genuen espero baina jende as-

ko bildu ginen lehenengo bileran hartan. Oso interesgarria izan zen, bakoitzak bere arazoak azaldu baitzituen”, azaldu du Urkizuko auzo alkatea den Pello Ezeizak. Berdin gertatu zen Aldaban: “Jende piloia etorri zen. Ilusio izugarriarekin hartu genuen guztiok proposamena. Herritarrek konturatu ziren mugitzen ez baginen auzoa amaitu egingo zela”, dio Jose Ramon Emanalde aldabarrak. Hurrengo pausoa etxez-etxe joan eta bertakoak elkarriketatzeari, herritarrek zituzten arazoak identifikatzeari. “Modu honetan ikusi genuen oro har auzotar guztiak dituzten beharrak antzekoak direla” azaldu du galdeketa egin zituen teknikariak. Behin behar horiek aurkitu eta gero, Aldabako eta Urkizuko diagnostikoa egin zuen Tolomendik, eta jarraian, diagnosi horretatik abiatuta, behar horiek betetzeko ekintza plana diseinatu zuen.

Lehenengo zeregina, auzo bakoitzean auzo elkarte bat sortzea izan zen. Era honetan, Aldaban Intxur Auzo Elkarte sortu dute eta Urkizun, Alur Txiki Auzo Elkarte. “Lehen, hiru auzotan banatuta egoten ginen. Uganen arazoren bat bazuten Aldaba erdigunean ez genuen horren berri izaten eta alderantziz. Orain hamar laguneko batzorde bat osatu dugu elkartearen, eta bertan auzo guztietako jendea dago. Udaletxean eskaeraren bat egiteko errazagoa da horrela”, azaldu dute Jose Ramon Emanalde, Alazne Arozena eta Jabier Aldalur Intxur Elkarte kideak. Urkizun ere eskertu dute auzotarrek biltzen dituen elkartearen sorrera. Batez ere 25 urtetan auzo alkatea izan de Pello Ezeizak nabaritu du aldea: “Orain arte arazoren bat zegoenean ni bakarrik joaten nintzen udaletxera. Baina ni bakarrik joan-

da ez nuen ezer lortzen. Taldean eta era formalizatu batean joanez gero indar gehiago hartzen du eskaerak”.

Hainbat hartueman eta bilera izan eta gero, Tolosako Udalak hitzarmena sinatu du Urkizuko Alur Txiki eta Aldabako Intxur elkarteekin. “Hitzarmen horiek lau urtetarako balioa dute eta auzo bakoitzean dituzten beharrak betetzeko konpromisoa hartzen du Udalak”, adierazi du Arrate Iturbe dinamizatzaileak. Hitzarmenak sinatuta, gauzak konpontzen hasiko direnaren esperantza dute Urkizun eta Aldaban. “Borondatea badutela dirudi, ea garaia iristen denean demostratzen duten”, egin dute bat bi auzo elkartee-tako kideek.

### OINARRI-OINARRIZKO BEHARRAK

Norberaren arazoak soilik norberarenak izaten direla usate da, baina gehienetan, etxe guztietan arazo berberak izaten dira. Hori gertatu du Urkizun eta Aldaban ere. Diagnostikoa bildutako beharrak, behar amankomunak dira. XXI. mendean eta herrian bertan ur hornidura arazoak izatea, edo telebista seinalerik ez izatea pentsa ezina irudiko zaie askori. Errealitatea da ordea, eta atari aurrean dugu gainera. Urkizu eta Aldabako diagnostikoa oinarri-oinarrizko beharrak jaso dituzte.

Arestian aipatutako ekintza-planeari lehentasunaren arabera zerrendatu dituzte egin-



Pello Ezeiza eta Arantxa Sorrondegi, Urkizuko Alur txiki auzo elkarte kideak.

beharrak. Bai Urkizun eta bai Aldaban, lehendabiziko zeregin bezala auzotarrek biltzeko lekua egokitzea jarri dute. Elkarte gastronomiko bat; auzotarrek bilerak, afariak eta kultur ekintza ezberdinak egiteko. Aldabarrak, iazko urterako arte erdigunean zegoen tabernan biltzen ziren, baina iaz itxi egin zuten jatetxea eta orain ez dute biltzeko tokirik. “Jendeak elizatik atera eta hamaitakoa non egin ere ez du”. Apaizetxean egokitu nahi dute Intxur Elkartearen lokala. “Apaizetxea auzotarrek eraiki zuten auzolanean, eta trukean eraikina herritarrek erabili ahal izango zutela esan zuen orduan gotzaitegiak. “Konpromiso hori hitzekoa da,

ikusiko dugu orain idatziz konpromiso bera hartzeko prest dauden”, azaldu dute aldabarrak. Baimena eskatzeko Tolosako Udala harremanetan jarri da gotzaitegiarekin eta bilera baten zain daude.

Urkizun badute taberna, baina auzotarrentzat beste tokitxo bat nahi dute. Gaur egun, ekintzak eta bilerak egiteko elizaren lokala baliatzen dute, baina auzo elkarte kideen esanetan, erabili behar duten bakoitzean aldeazurretik baimena eskatu behar izaten dute, eta arazoak izaten dituzte askotan. Hasiera batean elkarte bertan egokitzea pentsatzen bazuten ere, elizaren eta auzotarren artean sortu zitezkeen eztabaidak ekidi-

teko, beste lokal berri bat eraikitzea proposatu dute. “Gure elkarte nahi dugu, eta horregatik proposatzen dugu, elizaren parean, lehen eskola zegoen lekuan lokal berri bat eraikitzea”, esan dute Arantxak eta Pellok. “Ideia eta egitasmo mordoia dugu buruan, baina horiek egiteko lehenik leku fisikoa behar dugu”, jarraitu dute elkarte eraikitzeak duen lehentasuna azpimarratu nahian.

Urkizu auzoan duten beste arazo potoloa ur hornidurarena da. “Udara igaro ostean, ur faltan ibiltzen gara urtero. Hori udaran euria egiten badu, zeren lehorte izaten bada,

(hurrengo orrian jarraitzen du)



Jose Ramon Emanalde, Alazne Arozena eta Jabier Aldalur, Aldabako Intxur auzo elkarte kideak.

**CDI**  
Informatika

Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak

GUDARI KALEA, 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL  
ISASU  
INDUSTRIARAKO  
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

**MATIAKO**

Mertzeria eta  
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7  
TOLOSA

**R A  
K U**

Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

(aurreko orritik dator)

egoera are eta txarragoa izaten da”. Hamarkadak daramatzate urkizuarrek urari begira, eta ezin dute gehiago. “Ura zisterna eta traktoreetan ekarritz ibiltzen gara. Depositua bete eta beti urari begira egon behar izaten dugu. Noski, ia etxe guztietan ganadua dago, eta hauei ere edaten eman behar zaie”. Arazo honen konponbidea nonbaitetik ura bilatzea dela uste du Ezeizak. Ur hornidurarekin batera garraio publikoaren beharra ere azpimarratu dute. “Agian hain jende gutxi bizi den auzo baten zatat autobus bat jartzea gehiegi da, baina gutxienez taxi zerbitzu bat jartzea eskatzen dugu”, diote. Proba moduan hastea proposatzen dute eta ematen zaion erabileraren arabera zerbitzua moldatzea. Hitzarmenean jasotako beste puntu garrantzitsu bat, bideen konponketa da. Duela bi urte konpondu zuten Urkizuko muinora doan errepidea, orain Urkizutik Albizturra doan bidea konpontzea nahi dute. “Albiztur aldean dauden baserrietara joateko bidea da eta auzotar asko ere bide horretatik joaten dira mendialdean dituzten lur sailletara”. Errepidea egoera txarrean dago eta Albizturko zein Tolosako udalek hartu dute bidean konponketak egiteko konpromisoa. Gainontzeko mendi-bideak berreskuratzeko gogoia ere adierazi dute. “Urkizutik Bidegoianera mendiz joateko aukera zegoen lehen eta pena da horrelako mendi-bideak alferrik galtzea”, dio Ezeizak. Erniora joateko bidea ere zikina dago euren esanetan “eta hortik jende asko ibiltzen da”. Aipatutako behar hauek jarri dituzte zerrenda hasieran. Baina ez dira bakarrik: base-riak seinalizatzea, parkea toki egokiago batean jartzea, frontoia konpontzea, suteetako ur puntuak jartzea...



Urkizun 100 lagun inguru bizi dira, Auzo Txikin, Urkizu muinoan eta Albiztur aldeko baserrietan.

Aldaban ere etxeko-lanen zerrenda luzea prestatu dute, beharrak ugariak direlako. Esate baterako, auzoan ez dute komun publikorik. Huskerria dirudien arren, behar-beharrezko zerbitzua dela azaldu dute Arozena, Emanalde eta Aldalurrek. “Aldabako elizan ezkontza asko izaten da. Lehen taberna zabalik konpontzea nahi dute. “Albiztur aldean dauden baserrietara joateko bidea da eta auzotar asko ere bide horretatik joaten dira mendialdean dituzten lur sailletara”. Errepidea egoera txarrean dago eta Albizturko zein Tolosako udalek hartu dute bidean konponketak egiteko konpromisoa. Gainontzeko mendi-bideak berreskuratzeko gogoia ere adierazi dute. “Urkizutik Bidegoianera mendiz joateko aukera zegoen lehen eta pena da horrelako mendi-bideak alferrik galtzea”, dio Ezeizak. Erniora joateko bidea ere zikina dago euren esanetan “eta hortik jende asko ibiltzen da”. Aipatutako behar hauek jarri dituzte zerrenda hasieran. Baina ez dira bakarrik: base-riak seinalizatzea, parkea toki egokiago batean jartzea, frontoia konpontzea, suteetako ur puntuak jartzea...

patutako behar hauekin batera, zenbait baserrietako argiztatzea, garbiketa zerbitzu minimoak, ur zikinak bideratzeko fosa septikoa, suteetarako ur puntuak... jaso dituzte hitzarmenean. “Urte askotan ez da ezer egin eta lista luzea da”, gaineratu dute.

Etxebizitzaren gaia ere bi auzoetan dago presente. Aldaban etxe gutxi batzuk egiteko proiekturen bat bada goela aipatu dute. “Ez dago erabat zehaztuta, baina arau subsidiarioetan etxebizitzak egiteko bidea zabalik utzi genuen”, dio Emanaldek, “familia berriak etorriko balira biziberritu egingo lukete auzoa”, jarraitu du. Urkizun, aho txikiarekin izan bada ere, “proiekturen bat ba ote dagoen” aipatu dute.

Bestalde, urkizuarrek eta aldabarrek kanpoko jendea erakarri nahi dute auzora. Biak leku interesgarri askotarako abiapuntu dira. Urkizutik Erniorako bidea esaterako oso atsegina da, eta bertatik Mendikutera edo Lizardira joan daiteke, bista zoragarriez gozatuz gainera. Aldaban, Intxur mendiko aztarnategia dute. Oso leku

interesgarria nahiz eta inork gutxi ezagutzen duen. “Orain arte ez dugu propagandarik egin, baina Intxur-i oihartzuna eman nahi diogu”, dio Arozenak. Aukera baliatuz, tolosar guztiei Aldabara hurbiltzeko eta euren herriko auzoa ezagutzeko deia egin die. “Harrigarria da, baina tolosar askok ez du Aldaba ezagutzen”. Dei bera egin dute Urkizuko Arantxa Sorrondegik eta Pello Ezeizak. Bi auzoetan, kultur ekintza ezberdinen egutegi bat osatu dute.

Udalak eta bi auzo elkarteek hitzarmenak sinatuta dituzte eta orain lan egiteko garaia heldu da. “Gure alde-rik lanerako ilusio eta gogo izagurria dugu”, diote bi auzo elkarteetako kideek. Orain Udalaren erantzunaren zain daude. Udaletxean jarraipen batzorde bat eratu da eta bertan bilduko dira udal ordezkariak eta auzo elkarteetako kideak diseinatutako ekintza plana aurrean dutela. Tolomendiko teknikaria ere aldamenean izango dute Aldaba eta Urkizuko auzotarrek. Behar den guztia auzoak berpiztearen alde. ■

Olatz Peon  
Alkateordea eta Auzoetako arduraduna

## “Herriko gainontzeko auzoei ematen zaien trataera bera emango diegu landa eremuko auzoei”

### Auzoetako arduradun bezala zein da zure zeregina?

Auzoak zerbitzuekin oso loturik doaz eta horregatik batzorde berdinean daude. Egin behar dena, batez ere auzoekin harremanetan egotea eta hauen beharrei erantzuna ematea da: antolakuntza eta zerbitzu beharrak asetzea.

### Badira Urkizu eta Aldaba auzoak ezagutzen ez dituzten herritarrik. Ezagutza falta hori nabaritzen duzue udaletxean?

Bai. Baina guk baino gehiago auzoek nabaritzen dute. Eurek esaten dute Udaletik oso urrun sentitzen direla. Izan ere, landa eremuko auzoak herrigunetik oso urrun daude, zailagoa da hara iristea. Horregatik behar oinarrizkoagoak dituzte. Orduan, orain arte ahaztuta egon direla sentitzen dute.

### Ahaztuta egon diren sentimendu horretan Udalak izango du ba errurik?

Bai noski, erru guztia dugu. Zaila da harreman bat sortzea, eta are gehiago denboran iraungo duen hartue- man bat lortzea.

Oraindik ere, auzo alkateak lanean ari dira. Urteetan beregain hartu dituzte auzo-ko arazo guztiak. Zama astu- negia izan da beraientzat. Beharrak ere handiak dira auzo horietan. Udala beraiekin harremanetan jarri da eta Berpiztu planaren bitartez antolatzen hasi dira. Auzoko beharren diagnosis eginez, auzoak bizi duen egoeraren argazkia egin dute. Orain

badaukagu lanean hasteko abiapuntu bat.

### Argazki horren zain zineten...

Udaletxeak duen alde txarra da, lau urtero legealdi berri bat hasten dela eta pertsona berriak daudela. Zaila da harreman horiek legealdien gaintetik jartzea. Auzo hauetan dituzten beharrak ezagutzen genituen udaletxean, baina lanean hasteko argazki hori falta zitzaigun, antolaketa beharra zegoen.

tzen duenak lan hori mahai gainean izango du.

### Diru-laguntzak jasotzeko garai- an Aldaba eta Urkizurentzat kaltegarria izan da Tolosako auzo izatea...

Egia da. Dirulaguntza asko daude 1.000 biztanletik behera dituzten landa eremuko herrietzat. Aldaba eta Urkizu Tolosako auzo honenbestez programa horietatik at geratzen dira.



Oso oinarrizko beharrak dituzte: ur hornidura esaterako. Hain jende gutxi bizi den auzo batera ura eramatea oso garestia da eta lan handia eskatzen du. Administrazioa oso motela da gauza horiek egiteko eta hortik dator kaltea: hemendik urte gutxira udalean aldaketa bada zer gertatzen da hasitako lanarekin? Hori izan da orain arteko arazoa. Orain ekintza plana egin da, epeak finkatu dira. Horrela, datorren legealdian auzoetako ardura har-

Baina badaude beste hainbat diru-laguntza programa ere. Tolomendik gestionatzen dituenak esaterako, eta EREIN programa ere hor dago. Bestalde, orain arte, urkizuar eta aldabarrak euren arazoak kontatzera bakarrik etorri dira udale- txera. Dirua soilik festak antolatzeko eskatu dituzte. Orain, urte osoko ekintzen programa bat egiteko asmoa dute urteko aurrekontuetan sartu eta partidaren bat lortzeko. Antolatzen dituzten

ekintzak aurrera eramateko diru partida bat eskuratzeko eskubidea dute, herriko gainontzeko kirol eta kultura elkarte guztiek bezala.

### Zein konpromiso hartu ditu Udalak Urkizu eta Aldabako auzo elkarteekin sinatutako hitzarmenetan?

Nik uste dut, hitzarmenean jasotzen den espiritua bedintasunarena dela. Hau da, herriko beste auzoei ematen zaien tratamendu bera emango zaie Urkizu eta Aldabari. Urteko kultur ekintzak antolatzen, landa eremuko auzoak kontutan hartzea eta gutxienez urtean bi ekintza bertan egitea; kirol ekintza- ren bat antolatzen badute herriguneko beste kirol ekintza bat antolatzen duen elkarte bati ematen zaion diru laguntza bera ematea... Tolosaldea Tour-i ere gure landa eremuko auzoei herrien trataera emateko eskatu diogu. Geure auzoekin distantziak apurto nahi ditugu.

### Hitzarmenak sinatuta, zer dator orain?

Oraingoz ez dugu asmorik Berpiztu programa hau beste auzoren batean aplikatzeko. Orain batzorde txikiak osatuko ditugu. Bileren maiztasuna finkatu eta batzordea arautuko dugu: bere idazkaria izango du eta gainontzeko batzordeek bezalaxe funtzionatuko du. Batzorde hauetan auzoko auzoei jarraipena egingo zaie eta honek Udala lan egite- tera behartuko du.

**TOLOSA >>>** URRIAN 25 URTE BETE ZIREN JOXI LASA ETA JOXEAN ZABALA DESAGERTU ZIRENETIK. ERRUDUNAK LIBRE DAUDE.

## 25 urte eta gero Joxi eta Joxean gogoan

Joxi Lasa eta Joxean Zabala GALen eskuetan bahitu, torturatu, erail eta desagerraraziak izan zireneko 25. urteurrena betentzen denean, debeku guztien gainetik gogoratu ditu Tolosak bere bi semeak. Galtzaundik, 25 urte iraun dituen kasua berreraikiz oroitu nahi izan ditu Lasa eta Zabala.

*Erredakzioa*

### 1983KO URRIAK 15: AMETS GAIZTOAREN ABIAPUNTUA

Larunbatetan ohikoa zen bezala, Baiona T'tipiak iheslarien eta mugaz bestaldetik etorritako familia eta lagunuen topaleku itxura hartu zuen beste behin. Auzoko tabernetako elkarrizketa luzeen artean Joxean Zabala eta Joxi Lasaren ahotsak ere entzun zitezkeen euren senitarteko eta lagunekin hitzaspertuan ari zirela. Ez ziren ondorengo orduetan hasiko zen amets gaiztoaren jakitun.

Gau horretan bertan, Oñatin Guardia Zibilaren konboi bat erasotua izan zen. Gizon bat hilik suertatu zen. Orduan, Gipuzkoako gobernadore zibil karguan zegoen Julen Elorriaga eta Galindo komandantea gertaeren lekura hurbildu ziren. Arrasateko ospitalean gaua igaro ondoren, goizeko 06:00ak aldera berri bat jaso zuten Intxaurrendoko kuarteletik: "Frantzian bi erori dira, eta hona ekarriko dituzte".

### 1983KO URRIAK 17: JOXI LASA ETA JOXEAN ZABALAREN ARRASTORIK EZ

Astelehena zen. Mariano Martinez Colomo, bi tolosar gazteen iheskidea, goizean goiz jaiki eta lanerako bidea

hartu zuen. Baiona T'tipiko kaleetan barrena zihola, bere autoko atea zabalik ikusi zuen. Argazkiari trazu txarra hartu zion, bere autoa Joxi eta Joxeani utzi baitzien bi egun lehenago, eta geroztik ez baitzitu ikusi. Autoko giltzak itzultzera ere ez ziren gerturatu. Bi mutilei zerbait gertatu zitzaizen susmoa areagotu egin zen autoko atzeko eserlekuan Joxiren jaka gorria ikusi zutenean.

### 1983KO URRIAK 18: OKERRENEAN PENTSATZEN

Egun bat igaro zen bi tolosar gazteak falta zirela konturatu zirenetik. Kezka zabalitzen joan zen Baionako eta Ipar Euskal Herriko iheslarien komunitatean. Tolosara ere itsisi zen berria. Egoera are kezagarriagoa bilakatu zen, urriaren 18ko albistegiak eman zuten notiziarekin: "Lau polizia espainiar atxilotuak izan dira Hendaian euskal errefuxiatu bat bahitzen saiatzeagatik".

### 1984KO URTARRILAK 20: SER KATEKO ALICANTEKO EGOITZAN TELEFONO SOINUA

Nieves Martinez kazetariak hartu zuen telefonoa. Arratsaldeko 16:15 ziren. Gizonezko ahots batek GALen izenean hitz egiten zuela jakinarazi zuen. "Entzun arretaz esango dudana, ez dut berrir errepikatuko. Lasa eta Zabala ETAko kideak asasinatu ditugu. Hilurretik abade bat eskatu dute baina ez diegu eman, ez baitzuten merezi". Ahots anonimoak Alicanteko Busot herrian kokatu zuen gertakaria. Ondoren deia eten zen. Deia ez zitzaion ga-



rrantziarik eman. Ondorioz, inoiz ezingo da jakin, benetan 1984ko urtarrilaren 20an hil zituzten bi gazteak. Gertaera honen ostean, Josu Mujika atxilotu zuten Tolosan. Hala esan zion Guardia Zibilak galdeketa: "Lasa eta Zabalarengatik harripatu zaitugu. Eta badakizu non dauden? Hilda daude, ondo lurperatuta eta urruti".

### 1985KO URTARRILAK 25: EHIZTARI BATEK HOBI BAT AURKITZEN DU BUSOT HERRIAN

Ehiztariak giza gorputzaren arrastoak izan zitezkeenak aur-

kitu zituen Foya de Coves ize-neko inguru menditsu batean. Gizona, hobi batean pertsona baten gorpuzkinak zeudela konturatu zen eta Busot-eko Guardia Zibilaren egoitzara deitu zuen. Lurraren eta karearen azpian bi gorpu aurkitu zituzten. Ahoan trapuak zera-matzaten eta begien parean zintak zituzten, baita bendak ere. Hobitik 3 metrora Geco motako bala bat atzeman zuten eta hobian bertan Parabolum erako 9mm kalibreko beste bat. Garezur batean tiro batek eragindako zuloa atzeman zuten, eta bigarren gare-

zurrean bi. Gorpuk ez zituzten identifikatu eta Alicanteko hilerri munizipaleko deposituan gorde zituzten.

### 1995KO UDABERRIA: HAMAIRU URTEREN OSTEAN LASA ETA ZABALAREN GORPUAK IDENTIFIKATURIK

Alicanteko Polizia Judizialeko goi karguak, GAL erakundeari egozten zitzaizkion pertsonen desagerteten kasuei erreparatu, eta kasu hauetan kareaz egiten zuten erabilera antzekoak konturatuta, Busot herrian atzemandako gorpuk aipatutako erakundeak hamairu urte atzera desagerrarazitako Lasa eta Zabala izan zitezkeela susmatu zuen. Gorpuzkinei autopsia eta ADN frogak egin ostean, hipotesia baieztatu egin zen. Joxi Lasa eta Joxean Zabala ziren hain era bortitz eta krudelean torturatu ondoren, tiroz hil eta kareaz desagerrarazi nahi izan zituztenak.

### 1995KO EKAINAK 21: LASA ETA ZABALAREN GORPUZKINAK ETXERATZEAN ISTILUAK

Hamairu urteko amets gaiztoaren ostean ekainaren 21.ean iritsi ziren Lasa eta Zabala tolosarren gorpuzkinak Euskal Herrira. Hondarribiako aireportuan, arratsaldez lurrreratu zen Joxi eta Joxean etxera zekartzan hegazkina. Aireportuko atarian senitarteko, lagun eta herritar ugari bildu ziren bi gazteen senitartekoei babesa eman eta gorpuen "bahiketa" salatzeke. Ertzaintzaren eta bildutakoen artean istiluak sortu ziren, hainbat lagun zauritu zirelarik. Carlos Bueren epaileak

gorpuak heldu bezain laster lurperatuak izan zitezten emandako aginduaren aitazkipean, polizia indarrek bahitu zituzten gorpuk eta maite zituztenei haiengana gerturatu zuten utzi gabe ekarri zituzten Tolosara.

Hilerrian bildu zirenek ezin izan zieten agur lasai eta bero bat eman GALEk eraildako bi gazteei. Ertzaintzak senitarteko eta lagunuen aurka egin zuen, hainbat pertsona zauritu zirelarik. Lasa eta Zabala familiak gogor salatu zuten polizia autonomikoaren portaera. Hurrengo egunean Santa Maria Parrokia leporaino bete zen bi gazteei eskainitako elizkizunean.

### 2000KO MAIATZA: 365 URTEKO ZIGORRA ERRUDUNENTZAT

Enrique Rodriguez Galindo, Julen Elorriaga, Angel Vaquero, Felipe Bayo Leal eta Enrique Dorado Joxean Lasa eta Joxi Zabala bahitu, torturatu, erahil eta desagerrarazteagatik 365 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuten 2000ko maiatzan Auzitegi Nazionalak ateratako sententziak. Aipatutako bakar batek ere, ez ditu hamar urte eman kartzelan. Denak aske daude, eta kartzelan egon ziren bitartean, "luxuzko preso" moduan hartu zituztela azaldu dute lekukoek.

Amaitu berri den hilabetean 25 urte bete dira Joxi Lasa eta Joxean Zabala desagertu zirenetik. Denbora guzti honetan urtero gogoratu ditu Tolosak bere bi semeak. 25. urteurrenean ordea Lasa eta Zabala omenduak eta oroituak izatea eragotzi



nahi izan dute urriaren 18an deitutako manifestazioa debekatuz. Manifestaldi istilutxuaren biharamunean, bi gazteen senitartekoei eta herritarrek Ertzaintzaren jarra salatu zuten, "Joxi eta Joxeanen hiletako irudiak erre-

pikatu" zirela esanez. Jarraian argi utzi nahi izan zuten, "armen, atxiloteten eta jazarpenen bidez ez dutela lortuko herri honen historia ixiltzerik, ez dutela Joxi eta Joxeanen oroimena ezabatzerik lortuko".

### JOKIN BILDARRATZ ALKATEA URRIAREN 18KO ISTILUEI BURUZ

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Berria egunkariak azaroaren 2an kaleratutako alean urriaren 18ko istiluei buruzko ondorengo adierazpenak egin zituen:

"Madrildik inposatu zaituen beste erabaki baten ondorioa izan zen hori. Garzonek erabaki bat hartzen du, eta gure artean lisakarra sortzen du".

"Herri bezala txikiagoak gara. Zuhurtasunez eta abileziak jokatu behar dugu. Gertatzen dena da haien [Estatuaren] tranpetan askotan erortzen gare-

la. Manifestazioa deitu zutenekin, familiarekin, bi aldiz bildu nintzen egunean bertan. Bideren bat bilatzen saiatu ginen, baina ez genuen lortu. Gero eman zen ikuskizuna benetan penagarria izan zen. Ondoren bost atxilotu egon ziren. Talde armatuko kide izatea egotzita Auzitegi Nazionalera eramango zituztela esan zen. Atxilotuta zeuden senide batzuekin hitz egin nuen, eta denon artean ahaleginak egin genituen hori guztia saihesteko".

**BERASTEGI >>>** DUBLINEN OSPATU DIREN GAZTAREN MUNDU MAILAKO SARIETAN BRONTZEZKO DOMINA IRABAZI DU ARANTXA GARAIBURUK

## “Sekula ez da ikasten gazta guztiz ondo egiten”

Bere aitaren zein amaren aldeko familian beti egon dira ardiak. Bere aitak ardiak ditu. Bere amak gaztak egiten ditu. Arantxa Garaiburu, ordea, erizaina da, eta sekula ez zitzaion burutik pasa egunen batean bizimodua gaztagintzatik aterako zuenik. Alabaina, gauza asko, pentsatu gabe ere, gertatu egiten dira.

Arantxa Garaiburu

**A**rantxak osaba bat zuen, Idiazabal Jatorri Izendapeneko gazta egiten zuena. Osaba, ordea, gaixotu egin zen, eta honek ilobari gazta egiten hasia proposatu zion. Arantxak eta bere senarrak, ardiak erosi, osabak gazta egiten zuen tokia alokairuan hartu, eta euren gazta egiten hasi ziren orain bi urte Berastegin. Joan den hilean Dublinen ospatu diren Gaztaren Mundu Mailako Sarietan brontzezko domina irabazi dute.

“Niretzat izugarria izan da”, dio Arantxak. “Egindako lanarengatik poz handia ematen dizu horrelako gauza batek, eta horrez gain, izen pixka bat egiteko aukera ere bai. Brontzezko domina ez dute guztiek irabazten, guk bi urte daramatzagu honetan, eta benetan pozgarria da”. Iaz Ordiziako gazta lehiaketan seigarren gelditu omen ziren, eta jakin zuenean ezin omen zuen sinetsi ere egin.

### GAZTAGILEAREN OGIBIDEA

Baserrri munduari loturiko lanbideak galtzen ari direla

dioten garai honetan, gaztagintzari heldu dio Arantxa Garaiburuk, eta gaur egun gazta egitetik bizi da. Oso ogibide lotua dela dio. “Otsailean gaztak egiten hasten zara, eta abuztura arte ez duzu bukatzen, larunbat, igande, jai-egun... ez dago atsedeenik. Bestetik ordea, zu zeu zara zeure buruaren nagusi, eta horrek lanerako orduan malgutasun bat ere ematen du. Gauza guztiek bezala, gaztik eta gozotik du gaztagintzak ere”.

Familian lanbide honen inguruko tradizioa handia izanik, gazta egiteari buruzko ideien bat bazuen Arantxak, baina ikasi egin behar izan du. “Pauso batzuk daude, eta pauso horiek ezagutu egin behar dira”. Orduan, urrats horiek ikasita nahikoa ote da gazta txukun bat egiteko? “Esaten dute esku pixka bat ere behar dela, berezko zerbait, eta horri praktika asko gehituta, orduan egin daiteke gazta txukun bat. Hori bai, zenbaitek dio gazta egiten ez dela inoiz ikasten, beti dagoela zerbait gehiago hobetu beharrekoa, eta ni ere bat nator uste horrekin”.

Aurrekoarekin batera, Arantxak esnearen kalitatearen, eta honekin lotuta, ardien zainketa garrantzia azpimarratu nahi izan du. Ardiak ongi zaintzen ez bada horien esnea ez dela ona izango dio, eta esne

ona ez izateak asko mugatuko duela gazta egiteko prozesua.

Gaztagintzatik bizi nahi bada, gazta egin osteko pausoa gazta saltzea da, noski. Arantxak eta bere senarrak normalean zuzenean saltzen dituzte euren gaztak; dena den, noizean behin handizkari baten bidez ere merkatatzen dituzte, eta azkenaldian azoka batzuetara joaten ere hasi dira. “Ordiziako azokan, Legazpikoan, Arrastekoan, Elgoibarkoan...

izan gara. Batzuetan ongi saltzen da, baina beste zenbaitetan ez da halakorik gertatzen. Legazpin, adibidez, bertako saltzaile baten alboan jarri gintuzten, eta guk harekin ezin genuen lehiatu, jendeak ezagutzen baitzuen, eta bai baitzekien nolako gazta zuen”.

Eta nolakoa da Arantxa Garaibururen gazta? “Krematsua. Gure gazten ezagarrri nagusia kremositatea dela esango nuke, ez dira gazta lehor-lehorrak. Hori bai, denborarekin lehortzen joaten dira, baina krematsua dira”.

Gaztagintzatik bizitzea erraza ote den ere galdetu diogu Arantxari. “Urte pare bat igaro arte ezingo dizut erantzun, ordura arte ez baitzaizkigu ditugun zor guztiak desagertuko. Jendeak ondo bizi litekeela dio. Esnea bakarrik saltzeak ez du askorako ematen, esnea oso gutxi ordaintzen baita, baina gaztek bai, ez milioi asko irabazteko, baina bizitzen joateko adina ematen dute”.

### GAZTA NOLA GORDE?

Gaztazale askoren buruhaustea gazta gordetzera koan sortzen da. Arantxak dio ez dagoela horretarako formula magikorik. “Batzuek diote modurik onena tupperware horietako batean sartzea dela azukre kozkor bate-

kin, azken horrek hezetasuna sortzen baitu. Beste batzuen ustez, hutsean ontziraturako poltsa horretan bertan mantentzea da egokiena, ahalik eta ondoen itxita, noski. Baina ez dago formula magikorik. Hozkailuan edukiz gero ere, ateratakoan ez badiozu epeltzen uzten, ez du zapora berdina izango. Hoberena, lehenbailehen jatea”. Horixe, bada, erremedioa.

Honako beste hau, berri, gaztagileen buruko mina: zuloak. “Hemen ere iritzi ezberdinak daude. Batzuek diote prentsaren ondorioz egiten zaizkiola gaztari zuloak, beste batzuek, ez delako ondo moztu eta moztetako orduan ez delako sueroa ondo kendu. Gaztan gelditzen diren bakterioek sortzen duten grasa ere izan omen liteke arrazoietako bat... Kontua da inork ez dakiela hori nola konpondu daitekeen. Esnea bizirik dago eta ezin da kontrolatu. Gazta egunean berdin egiten duzu baina inoiz ez da berdina ateratzen”.

Eta azken hau, gazta gogoko ez dutenen amesgaiztoa: usaina. Honek ere arrazoi bat baino gehiago izan omen ditzake. “Alde batetik, egiterako garaian esne gordina erabiltzen delako, egosi gabea, alegia. Bestetik, esne-



2 urte daramtza Arantxa Garaiburuk Berastegin gazta egiten.

ak dituen bakterioek eta botatzen zaizkion fermentuek ere eragina dute. Gainera, zenbat eta denbora gehiago izan gaztak, usaina ere fuerteagoa izaten du. Horrez gain, leku beroan baldin badago, gaztak berak grasa botatzen du, eta hori ere arrazoietako bat izan daiteke”.

### ORDIZIAKO LEHIAKETA

Gazta kontuez ari garela, ezin aipatu gabe utzi aur-

tengo Ordiziako gazta lehiaketan sortu den zalaparta. Arantxak baditu bere zalantzak gertatutakoaren inguruan. “Guk gaztak aurkezten ditugunean bi kontroletatik pasatzen gara. Beraz, ez zait iruditzen asko kostatzen zenik, irabazlearen izena esan baino lehen gazta horren zenbakia nori zegokion egiaztatzea, bost minutuko kontua izango zen asko jota, eta gauzak seguru egingo

ziren. Edo bestela, beste zerbait zegoen, ez dakit. Nik nire zalantzak ditut horri buruz. Eta irabazi zuena gazta ketua izan ez balitz? Itxuran ezberdintasunik ez egotean inor ez zen akatsaz ohartuko, une hartan behintzat. Arreta gehiagorekin ibili beharreko kontua zela iruditzen zait”. Bere ustez, Ordiziako txapelketak zer edo zer galdu du hankasartze honenkin. ■



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia

**ECEIZA**

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



# Sinesmen irrazionalak

ELLIS PSIKOLOGOAK RAZIONAL EMOTIBOA DERITZON PSIKOLOGIA GARATU ZUEN

Iñigo Jimenez

Errealitateak gure pentsamendu, aurreiritzi, esperientzia eta ezagutza eta abarren filtroak igaro behar izaten ditu, eta honek, bakoitzak egoera beraren errealitate ezberdin bat bizitzea dakar. Ellis, zendu berri den psikologoak, zeinak eragin handia izan zuen 50 eta 60. hamarkadatan, "razional-emotiboa" deritzon psikologia garatu zuen. Teoria honetan esaten zuen, trastorno emozionalak, irrazionalki egiten den etengabeko autodotri-ntzearen ondorio direla. Sinimen irrazionalak, helburu pertsonal jakin bat era exigente, absolutista eta ez fexiblean pertsegitzean datza.

Ellisek hiru sinesmen irrazional aipatzen zituen batez ere. Hiru sinesmen hauek, trastorno emozionalak sortarazten zituen ondoko helburuak lortzeko bidean:

- "Pertsona garrantzitsuen afektu eta aprobazioa lortu behar dut". (Helburua: besteen afektu eta aprobazioa).

- "Trebea izan behar dut (arrakasta izan), ezin dut akatsik egin, nire helburuak bete behar ditut". (Helburua: arrakasta lortzea).

- "Nahi dudana hori lortu behar dut modu erraz batean: ondasun materialak, emozionalak eta sozialak, helburu honengatik sufritu beharrik gabe". (Helburua: ongizatea).

*"Ellis, zendu berri den psikologoak, zeinak eragin handia izan zuen 50 eta 60. hamarkadatan, "razional-emotiboa" deritzon psikologia garatu zuen. Teoria honetan esaten zuen, trastorno emozionalak, irrazionalki egiten den etengabeko autodotri-ntzearen ondorio direla."*

Aipatutako lehenengo hiru sinesmen irrazional hauei bigarren mailako beste hiru sinesmenek jarraitzen diete Ellisen ustez.

- "Hau beldurgarria da. Ezin da dirudien bezain txarra izan". (Erreferentzia: Egoeraren aurkako balorea, tremendismoa).

- "Ezin dut jasan, inoiz ezin dut ondoeza esperimentatu". (Erreferentzia: Egoera ezatsegin bati aurre egiteko gaitasun eza, jasanezintasuna).

- "Naiz, da, edo zerbait txarra (zorte txarrekoa, ezertarako balio ez duena...)dira, zeren eta, egin behar ez den hura egiten dut, du edo dute". (Erreferentzia: gertara batetik abiatuta norbera edo besteak baloratzea, leporatzea).

Ellisek, emozio egokiak eta emozio desegokiak ere sailkatu zituen:

- **Tristura:** Sinesmen razionala du abiapuntu: "galera hau kaltegarria izan da baina ez zegoen arrazoirik hau gerta ez zedin". **Vs. Depresioa:** Sinesmen irrazionala du abiapuntu: "ez nuen zertan galera hau sufritu, eta beldurgarria da horrela izana".

- **Egonezina:** Sinesmen razionala du abiapuntu: "espero dut hori ez gertatzea, hala balitz zorte txarra izango litzateke". **Vs. Antsietatea:** Sinesmen irrazionala du abiapuntu: "ez luke gertatu behar, hala balitz beldurgarria izango litzateke".

- **Mina:** Sinesmen razionala du abiapuntu: "nahiago dut gauzak ondo egitea, hobeto egiten saiatuko naiz eta gaizki ateratzen bada zorte txarra". **Vs. Kulpa:** Sinesmen irrazionala du abiapuntu: "ezin ditut gauzak gaizki egin, eta hala irteten badira gaiztoa naiz".

- **Nahigabea:** Sinesmen razionala du abiapuntu: "ez zait gustatu egin duena, ez nuen hau gertatzetik nahi". **Vs. Haserre:** "Sinesmen irrazionala du abiapuntu: "ez zuen hori egin beharrik. Ezin dut jasan. Gaiztoa da".



"Amezketari buruz zer gustatuko litzaidake jakitea? Galdera horiei erantzun nahian idatzi nuen liburua".

## Jose Mari Otermin, ibilbide luzeko kazetari eta herri ikerlea

LIBURUA EGITERAKOAN EMOZIOA BILATU IZAN NAHI NUEN, DATU HUTSAK EMATEAN GELDITU GABE

Felix Aiestaran

**A**sentzinea Txiki-ko artzain familia bateko semeak ibilbide luzea egin du. Zortzi urte zituela aita hil ondoren ardiak saldu, eta anaia zaharragoaren Vespa motoaren atzean helduta joanez, Tolosako Sakramentinoetan hasi zen. Batxilergoa bertan egin eta Filosofia eta teologia ikasketak Deustuko Unibertsitatean egin zituen. Ikasketak lau urtez egin ondoren ez zuen apaiza egin nahi izan eta Madrilerara joan zen Kazetaritza ikasteko. Handik bi urtera 1973an Loiolako Herri Irratian udan praktikak egiten hasi zen.

**Telefonoaren beste aldetik ahots dotore, patxadatsu eta ezagunez hartu ninduen Jose Mari Otermin (Amezketari, 1948), hitzordua jartzeko deituz gero: irratigintzan ibilbide luzea egin du. Loiolako Herri Irratian hasi zen 1973an. Aldi berean, TVEko Euskalerrria euskarazko telebista saioan parte hartu zuen 1976 eta 1977an. La Voz de España Donostiako egunkarian DVra pasa zen Basarriren hutsunea betetzeko erronka hartu zuen Handik eta Hemendik saila egunero idatziz. Donostiako Herri Irratiko euskarazko programazioaren koordinatzaile izan zen 1981an. Euskadi Irratiaren sorreran parte hartzeko aukera bikaina izan zuen 1982an Ramon Labaienek deitu zionean eta 1990an Euskadi Gaztearen sorreran parte hartu zuen. 1991an Euskal Telebistaren Programa eta Miramon Zentroko zuzendaria izan zen. Egun programazio zuzendari-ordea ardura du bere gain.**

Donostian bizi den arren, ez du eten sorterrarekin lotzen duen zilbor-hestea. Amezketari buruz zituen galderen

erantzunak bilatu ondoren "Amezketari bide luze bezain malkarrak" liburuan bildu zituen 2005ean. Amezketaren

historia aberastetik ikertzen jarraitzen du eta Fernando Amezketarraren liburu monografikoa prestatzen ari da orain.

**Euskal irratigintzaren lehen urratsak bizitzeko aukera izan zenuen... Aberasgarria izango zen, ezta?**

Zorte handia izan nuen. Loiola Irratia ezagutu nuen euskal munduaren ia monopolio osoarekin. Loiola Irratia matxura bategatik isiltzen zenean familia askotan "irratia isildu da" esaten zen. Ez zegoen euskarazko besterik eta. Nik estimu handian dut irratia hura. Eskola ona eta jende

(hurrengo orrian jarraitzen du)

**Beti alai**  
gaitasun  
Garaian garaiko janariak  
eta arraikiatan bereziak  
Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

**CID**  
ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA  
Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

**KONTSULTA PSIKOLOGIKOA**  
Iñigo Jiménez  
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa  
Sta. M<sup>a</sup> de la Asunción klinika  
Gazte eta helduak | Dependentsia eta  
Dolu-terapia | menpekotasun  
Psikoterapia-prozesua | terapiak: tabakismoa  
astearte eta ostegunetan, 15:00 - 21:00

**ZABALA DESGUAZEAK**  
Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04  
Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTZA  
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347

**(aurreko orritik dator)**

ona izan nuen bertan, euskal mundua gertutik bizi zuena. Krisia sortu zen irati ereduarekin: alde batetik euskal irratia berezia izan behar zuela ziotenak eta bestetik ahalik eta irratirik estandarrena izan behar zuela ziotenak zeuden. Irratia homologatua egiteak oztopo handiak zituen. Kazetari euskaldun gutxi zegoen. Bestetik Vuelta Ciclista al País Vasco moduko esaldiak euskaraz esateko erreferentziarik ez genuen. Azkuek dioenez, Errazkinen elizari hiru itzuli ematen zitzaizkiola aipatzen da. Horrela aukeratu nuen "itzuli" hitza. Desoreka handia zegoen irratia egiten genuenon eta entzuleriaren artean. "Txosten" hitza profesionalok behin eta berriro aipatzen baguen ere, entzuleek ez zuten ulertzen gehienetan. Bertsolaritza puri-purian zegoen, baina gure bertso bilategia hutsean genuen. Askok sufritu nuen garai hartan beste iritzia zuen jendearen artean estimu handia nien eta oso azkarrak ziren kideak nituelako. Askok kostatu zen baina sortu zenetik sei urtera, Euskadi Irratiaren oihartzuna finkatu egin zen. Aukeratu genuen jendearen %97ak euskaraz ondo egiten zuela esan dezaket. Irrati homologatua egiteko izan genuen intuizioaz asmatu egin genuen eta hortik jarraitu behar du.

**"Euskalerrria" TVE-ren euskarazko telebista saioan aritu zinen...**

Jose Mari Iriondo aritu zen gehienbat. 1976 zen eta telebistarako jendea falta zen. Ordu erdiko potpurritxo hartan aritu nintzen: bazuen ume, euskal gaia, nazioarteko berri eta beste hainbat gairentzat tartetxoak. Telebistak izango zituen zailtasunen ispilu ez zen izango, baina lehen telebista ahalegin hura telebistarekin trebatzeko pausua izan

zen. Gogoratzen naiz Josemiel Barandiarani elkarrizketa egin niola.

**Prentsan 1979an La Voz de Españan Handik eta Hemendik eguneroko sailari ekitean, Basarri DV-ra pasatzean, bere Nere Bordaxotik saila ordezkatzeko erronka handia izango zen, ezta?**

Aldaketa politikoa izan zenean DV-k Basarri fitxatu egin zuen. Loiola Irratian zortzi edo bederatzirdu ordu lan egin ondoren egunero ez dakit zenbat orri idatzi beharra gogorra zen. Leher egin nuen eta medikuak hainbat egunez atsedean hatzeko ere esan zidan. Basarriren euskal munduari buruz idazten nuen: Luis Mari Mujikaren hiztegia edo apustu baten berri ematen nuen, filosofia ukituei ere tokia emanaz. Idazlanak autobusez eraman behar izaten nituen egunero Donostiara. Orduan ez zegoen internetik.

**Zein da euskal prentsaren egoera?**

Euskal prentsak ez du zerikusirik hasiera hartakoarekin. Euskal kantagintzaren ibilbidearekin pareka daiteke. Garai hartan euskal musikak oso erregistro gutxi zituen, gaur egun ugari dituenean, euskal telebistak ere erregistro ugari ditu. Lehia izugarria dago. Garai hartan pentsaezina zen *Berria* ere badugu. Herrietako aldizkari mordoa dago. Euskararen erabilera, oro har, ona da, bestelako uste egon arren. Euskal telebistak eta Euskadi Irratiak duten erronka istorioak egitea da. Kontakizuna, gaur egun, ez doa datuak ematek emozioa jartzetik baizik. Euskal komunikabideok emozioa bilatzetik jo beharko genuke. Euskal komunikabideak "izan beharko luke" bidetik jarraitzen du. Gauza bat da izan beharko lukeena eta bestea, dena. EITBren apustua jendeak normaltasunez hitz egitea



Pernandoren garaian Amezketaren bertsolaritzaren hiriburua zen.

izan behar du, "izan beharko luke"-enaren jo punturik jarri gabe.

**Jaioterriari eskainitako "Amezketaren bide luzea bezain malkarrak" liburua idazteak ohorea haina ardua ez al dizu bota bizkarrera?**

Hamar urterekin herrietik aterata, harremana asko galdu nuen. Herrian hobetzeko alde asko ikusten nuen, baina halako batean nire buruari esan nion, kritikak albo batera utzi eta herriaren alde zerbait egin behar nuela. Banuen materiala bilduta, baina sekula ez zitzaidan burutik pasa Amezketari buruz liburua egitea. Nire buruari galdera hau egin nion: Amezketari buruz zer gustatuzioa litzaidake jakitea? Galdera horiei erantzun nahian idatzi nuen liburua: noiz sartu zen lehen telefonoa? Noiz eraiki zen eliza? Goizeko lauetatik zortziak eta laurdenetara lanera joan aurretik osatu nuen liburu

Material ugari aurkitu nuen eta gero eta gehiago ikusten dut. Lehengoan, Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibozain nagusia den Jose Angel Garro Mujikak Amezketak izugarriko historia zeukala esan zidan. Amezketak alderdi askotatik du historia handia, Jauregi Aundiko ahaide nagusiak, bertsolaritzan Fernando, Urretabizkaia apaiza... eta oraingo erdarazko bertsioan aipatzen dut hemeretzigarren mende bukaeratik euskaraz oso txukun idazten zuen Ugarteko emakumea: Juliana Agirrezabal. Gauza asko dago. Liburu egiterakoan emozioa bilatu nahi nuen, datu hutsak ematen gelditu gabe.

**Amezketaren sorrera eta izen desberdinak aipatzen dituzu...**

Euskaraz ez zekien eskribauak arazoak zituen euskal hitzak idazterakoan. "Ameça", "Amezquita"... "Amesquita"

deitura Ameriketara Amezketaren baina zabalduagoa egongo da. Amezketaren ametzetik dator.

**Zer nolako lotura izan zuen Amezketak Nafarroako Erresumarekin?**

Gipuzkoa Gaztelan borondatez sartu zenaren auzian ez naiz sartuko. Nafarroak interes bizi zuen muga honetan. Badira agiriak Nafarroako Gobernua Jauregi Aundiko ahaide nagusiek bere alde egin zezaten dirutza handia eman zietela egiaztatzen dutenak. Eliza Iruñeako Elizbarrutian zegoen. Amezketan edaten zen ardoa Mañeru, Zirauki, Mendigorria eta Gareskoa izaten zen.

**Amezketaren Tolosaren zati izan zen 241 urtez eta 1615an burujabe egin zen...**

Ziur aski, ahaide nagusiekin agintekeriagatik eta bestetik izaten ziren lapurretatik babes bila indarra zuen Tolosa moduko herrira jo zuten. Tolosatik bereiztu zen Madrilatik dirua behar zuelako. Burujabetza lortzeko ordaindu egin behar zen eta bestetik populazioa handitzean herriak, agian, pausu hori emateko aukera izan zuen.

**XIX. Mendean, herri ttikien karlisten aldeko joera hautsiaz, euskal herrietan nagusi zen joera liberala indartsu azaltzen da Amezketan...**

Pernandoren garaiko Urretabizkaia apaizak eragin handia izan zuen. Cadizko Konstituzioak elizaren aurkako joera izanik ere, berak konstituzioaren aldeko jarrera izango du. Amezketan hogeiren bat lagunez osatutako gerrarako partida egon zen. Fernando erretorearen oso

laguna izanik, agiri ez badut ere, liberala zenaren hipotesia dut. Donostian liberala izatea arrunta zen, baina herri ttikietan ez. Izugarriko antzerkia egin zen Amezketan 1821an Madrilgo sistemaren aurkako parodia eginez. Hirurteko liberean Amezketak politika desberdinen arteko talka egiten du lehen aldiz.

**Aralarren istilu ugari izan zen...**

Igaratza inguruan 1792an amezketarrak harkaitzen artean gordeta zeudela, Ataun, Ordizia eta Beasaingoak bere ardiak bahitzen ikusi zituztenean izugarriko erreketak izan zen. Hamalau lagun harrapatu zituzten eta Amezketako Udaltxean itxi zituzten eta epaiketa izan zuten. Fernando ere hor inguruan izango zen. Madrilatik etorriko zaidan dokumentazioaren zain nago. Pernandoren bizitza

kontestualizatzekeo garrantzitsua izan daiteke.

**Pernando Amezketarraren distira eta miseriak aipatzen dituzu, Juan Ignazio Urretabizkaia eretore jantziaren alboan...**

Pernandoren garaian, Amezketaren bertsolaritzaren hiriburua zen. Zabala, Urretabizkaia erretorea eta Fernando bera bertsolari oso onak ziren. Beste herrietan galarazita zegoen bitartean, Amezketan, dirudienez, utzi egiten zen.

**Jauregi Aundi, Intsausti, Torreargaiaras... jauregiak aipatzen dituzu...**

Jauregi Aundi, Intsausti, Ergoenakoa, Artetxea... arkitektura aldetik indar handikoak izan arren, horrek ez du bermatzen bertako biztanleak horren aberatsak zirenik. Argañaras etxea ttiki samarra da. Daukan garrantzia osatzen duen multzoa da: errota, burdin labea... ez dakit zein egoera ekonomiko izango zuten. Ziur aski, izen handia bai, baina diru gutxi izango ziren. Jauregi Aundi etxe aberatsa izan zen, bere mendean 8-9 etxe bazituen.

**Jakue Bidea Azkarate, Bedaio eta San Martinen kokatzen duzu...**

Amezketaren aldeko karga dudala aipatu dizut, baina honetan gauza bat daukat kontra: hemendik Santiago Bidea pasatzen zenaren berri emanaz ez dago agiri. Manuel Lekuonak honetaz asko zekien eta San Martin inguruari Santiago Bidea tankera osoa hartzen zion. Dokumentatua dagoen bakarra Azkaratek zetorren bidea oso garrantzitsua zela da. Seguruenik, Ugartetik pasako zen. Santiago bideak San Martindik Ataun aldera jotzen zuenaren intuizioa dut.

**Amezketaren kristautasuna aztertzen dituzu. Komeria ederrak izan zituzten eliza eraikitzekeo...**

Gipuzkoako lehen eliza Al-

tzo Azpin dago. Amezketan kristautasunak gutxienez mila urte dituela esan dezakegu. 1547an bilera egin zuten eliza berria egiteko. Sakristian arku eta pintura arraroak daude. Eliza zaharra bertan egongo zen. Hildakoak, garai hartan, eliza barruan lurperatzen baitzituzten. Eliza tontor batean egotean asko kosta zitzaien eraikitzea eta 1750 aldera bukatu zuten. Dirudienez egindakoaren erorketak eta beste hainbat oztopo gainditu behar izan zituzten.

**Aralar Amezketaren muinean dago. Zein bilakaera izan du artzaintzak?**

Artzaintza azken 250 urteotan, nagusi izan da Aralarren, baina ez dut uste beti horrela izan denik. Jauregi Aundiko eskubideen artean Aralarren 250 txerri izan zirela aipatzen da, eta ez ardiak. Hor ikertzeko asko dago. Artzain lanetan amezketarrak Aramaio, Bizkaia, Hondarribi, Senpere eta Ahetze aldera joaten ziren.

**Meztetan wesntern moduko herria osatu zen. Aipa itzazu bertako urrezko garaiak eta gora-beherak.**

Bertan 600 lagun bizi izan ziren, bere familiak aparte. Kapila, denda, bi taberna, zirujaua..., herri bat zegoen. Toki askotatik etorritako jendea zegoen, Alemaniatik ere bai. Urretabizkaia alegiarra eta Fat alemaniarren eskutik minak martxa ona hartu zuten, 1792an utzi zuten arte. Azken saioak egin ziren 1966 arte.

**Zertan ari zara?**

Sei edo zortzi liburu idazteko gaia badago. Orain Fernando eta bere garaiaz ikertzen ari naiz. Pernandok Igaratzako istiluetan izan zuen partaidetza argituko didaten agiriaren zai nago. ■

**DANTZA >>>** AZAROAREN 16AN LEIDORREN ESKAINIKO DU ALURR DANTZA TALDEAK SUA IKUSKIZUNA

# Alurr suaren inguruan

Suak heriotza esan nahi zuen XVI. mendean Pierre de Lancrek epaitutako emakume sorginentzat. Suak izua ebokatu dezake, berotasuna edo magia. Alurr dantza taldeko kideentzat suak itxaropena esan nahi du, eta jendearentzat gustuko izango den itxaropenarekin ari dira jo eta su, *Sua* dantza ikuskizuna prestatzen. Azaroaren 16an arratsaldeko 19:30etan Leidorren jarriko dute eltzeta sutan.

Erredakzioa

**A**lurr dantza taldeak egin du bere ibilbide-txoa. Dagoeneko makina bat dantza emanaldi eskaini dituzte eskualdeko eta Euskal Herriko plazetan. “Baina orain arte egindako dantza emanaldiak ez zuten euren artean loturarik, dantza ezberdinez osatutako saioak ziren”, dio Eli Nosellas Alurreko kideak. Hasteko, horregatik da garrantzitsua Ibarako dantza taldearentzat *Sua* ikuskizuna, “dantza egiteaz gain istorio bat ere kontatzen delako dantzaren bidez”. Dantzariak zerbait ezberdina egin nahi zutela eta hasi ziren ikuskizun bat egiteko ideia lantzen. Zeregin horretan ari zirela, Eneko Arizaren Lagunak taldeak egindako *Sua* filmaren egokitutako saioa egitea bururatu zitzaion. Duela urte bete izan zen hori eta geroztik luze eta gogotsu aritu dira lanean. Lehenengo pausua gidoia egokitzea izan zen.



*Sua* dantza ikuskizunaren une bat.

“Oso zaila egin zaigu filmeko gidoia egokitzea. Lehenik filmaren egileekin elkartu eta gidoiaren laburpen bat egin ziguten. Baina oso zaila zen bertan kontatzen zena dantzaren bidez kontatzea. Berriro bildu ginen eta gidoiaren laburpen laburrago bat egin genuen. Berdin. Azkenean filmaren sustraietara jo dugu, esentziarekin geratu gara”.

## JAUNTXOAK, HERRITARRAK ETA SORGINAK SUAREN ARGITAN

Oinarri-oinarrian, *Sua* ikuskizunak jauntxoen eta herriaren arteko gatazka islatu nahi du. “Beti egon da bi aldean arteko gatazka, bai hamaseigarren mendean eta baita gaur ere”, dio Nosellasek. Gatazka honetan ordea ez dago ez irabazle eta ezta galtzailerik

ere. “Guk soilik gatazka hori erakutsi nahi dugu. Inor ez da irabazle ateratzen. Borroka egiten dute baina bakoitza bere aldetik joaten da”.

XVI. mendeko Lapurdin kokatuta dagoen *Sua* filmak, Pierre de Lancre epaileak egin zuen sorgin ehiza kontatzen du. Alurrek prestatutako emanaldian ere sorginek badute bere tokia. Katixa Pereak



prestatutako koreografian irreteten dira sorginak oholtzara. “Sorginak akelarreekin lotzen ditu jendeak. Emakume txoro batzuk bezala hartzen dira”. Baina *Sua* ikuskizuneko sorginak emakume finak dira. “Guretzat sorginak garai haietako emakume aurrerakoiak ziren. Hemen agertzen diren sorginek ilargiari egiten diote dantza eta pixkanaka askatzen joango dira euren sentsualitatea erakutsi arte”. Kontuz ibili beharko dute, herritarren begiradapean baitaude eta une oro gainean izango baitute

suaren mehatxua. Ikuskizuneko elementu guztiak lotzen ditu suak. Hasiera eta amaiera da sua. “Hasieran suak beldurra, izua ebokatzen du. Amaieran berriz itxaropena, sua ez baita itzaltzen”. Dantzari bat izango da estenato-kian sua irudikatuko duena.

Alurrek ondo prestatu du saioaren haria. Argi dute koreografia bakoitzak zer irudikatu nahi duen. Hala ere badakite irakurketa ezberdinak egin daitezkeela. “Guk kontatu nahi dugun hori adierazten saiatzen gara, baina

norberak bere irakurketa propioa egin dezake, aukera hori ere eman nahi izan dugu”.

Dantza ez ezik beste gorputz espresioak ere landu dituzte saioa prestatzeko. Musika, argiak, jantziak eta koreografiak, dena etxean landutakoak da. “Errazena lana beste bategitea zen, baina guk egin nahi izan dugu guztia, norberak egindakoa hobeto adierazten baita beti”. Koreografiak Edu Muruamendiarek egin ditu Alurreko gazteen laguntzarekin. “Dantza guztiak oso indartsuak dira, biziak. Betiko dantzak dira gehienak, baina koreografiatuta daude. Gero, pastoralako pausoak eta egokiak diren beste elementu batzuk ere sartu ditugu”. Ordu bete



iraungo duen saioan hamabi koreografia eskainiko dituzte.

Gogor egin dute lan Alurren. Urte betez, eguneroko lana izan da *Sua* ikuskizuna prestatzea. Horregatik estreinaldirako gogo handiaren daude. Azaroaren 16an Leidorren arratsaldeko 19:30 ean eskainiko dute lehendabiziko aldiz *Sua* ikuskizuna. ■

## Galtzaundiren kultur ekitaldiak

Azaroak 20  
Idoia Sanchez  
Ipuin  
kontalaria  
arratsaldeko  
17:30  
Altzo  
liburutegian



Azaroak 14  
Kultur Errota  
“Ogiyik karri etzun semia”  
Txirene Antzerki taldea  
Abaltzisketa  
17:00etan liburutegian



Durangoko azokara  
txangoa  
Abenduak 6, larunbata

Autobusak  
10:00 Tolosan  
10:10 Billabonan  
10:20 Andoainan  
Itzulera: 19:00tan Durangotik  
Sarrerak: 10 euro (bazkideentzat 8 euro)  
Izen ematea: Galtzaundi eta Aiurriko bulegoetan

# TAKE, ereindako hazitik uzta jasotzen



HARROBIA LANTZEN EGINDAKO AHALEGINEN SARIA JASO DU TAKE-K. GAUR, 12 TALDE ETA 160 JOKALARI DITU KLUBAK.

Leire Zubeldia

**Bidebide-Ibiza taldeak hasiera bikaina eman dio denboraldiari. Sentsazio onak dituzue?**

Aurrendenboraldi ona egin genuen. Ligan jokatuako lehen lau partidu irabazi ditugu. Sendo aurkitu gara, bai kanpoan eta baita etxean ere. Horregatik, une honetan saiklapeneko lehenak gara. Sentsazio onak ditugu. Jendea pozik dago eta ondo ari da entrenatzen. Horrela jarraituz gero, lehenengo bost postuetan sartu eta igoera fasea jokatzeko posibilitateak ditugula uste dut.

**Beste albiste pozgarri bat, TAKE-ko familia ugartu egin dela da...**

Bai, eta oso pozgarria da hori. Hiru talde berri ditugu aurten eta iaz baino 90 gazte gehiago dauka klubean, guztira 160 pertsona osatzen dute harrobia. Mutiletan egitura finkatuta dugu dagoeneko, orain neskekin ari gara lanean. Mutiletan zortzi talde daude, nesketan lau. Helburua biak parekatze da. Une honetan, nesken bi talde infantil eta bi kadete ditugu, iaz baino bi talde gehiago. Ea datorren urtean ere nes-

**Berrikuntza eta albiste pozgarri ugariarekin hasi dute TAKEko taldeek saskibalo denboraldi berria. Alde batetik, klubeko familia handitu egin da. Iaz baino 3 talde gehiago dauka orain, eta guztira 160 gazte ari dira saskibaloian jokatzeko. Nazional mailan lehiatzen den seniorren taldeak sponsoreraz aldatu du, Bidebide-Ibiza izena hartuz. Aldaketa gehiago ere egon dira. Yon Gonzalez, iazko denboraldira arte senior mailako jokalaria zena, entrenatzaile izatera pasa da. Berarekin egon da Galtzaundi. TAKE, urteetan ereindako haziaren uzta jasotzen ari dela dio**

ken parte hartzea hazten joaten den.

**TAKE-ko harrobia hazten joan dadin jarri nahi al duzue saskibalo eskola martxan?**

Saskibalo eskola martxa jartzeko asmoa dugu bai. Infantil mailatik aurrera hasten gara kirol hau lantzen. Saskibalo eskolaren asmoa haur txikiagoekin lan egitea da. Baina egitasmo honen helburua ez da harrobia haztea, txikienei saskibaloira hurbiltzeko aukera ematea eta honekin gozaraztea baizik. Une honetan, saskibaloiak indar handia hartu du eta ez daukagu jendea erakartzen ibili beharrik, eurak etortzen dira. Nire ustez, txikiekin saskibaloia lantzeko modu polita izango da eskola. Datorren urtean hasteko asmoa dugu.

**Zeri zor zaio saskibaloiak eskualdean izan duen gorakada hau?**

Nik uste dut gauza askok izan

dutela eragina. Brusaren igoerak, Tauk liga irabazi izanak... Horretaz gain, TAKEn aldeko efektu bat sortu da: Lehendik saskibaloian jokatzeko zutenek euren lagunak animatu dituzte, eta lagun hauek beste lagunak bultzatu dituzte gauza bera egitera. Horrela, sarea zabaltzen joan da. Ekintza berriak egiten hasi gara. Iaz esaterako Gironara joan ginen txapelketa bat jokatzerara. Oso ondo pasa zuten gazteek, aurten berriro joango ote garen galdetzen ari dira. Era honetan, jokalariek ikusten dute saskibaloia ez dela soilik entrenatzea, ondo pasatzeko aukera ere badago, eta hori motibazio iturria da klubean jarrai dezaten. Uste dut, hau guztia ondo egindako lanaren saria dela.

**Aurtengo beste nobedadeetako bat zu zera, Bide-Bide Ibizako entrenatzaile berria...**

Entrenatzaile bezala lan egi-

ten dudak bosgarren urtea da hau, baina senior mailako taldea entrenatzen dudak lehenengo aldia da. Udan nazional mailako entrenatzaile titulua ateratu eta praktikak egite aldera, Jimi taldeko egungo entrenatzailearen laguntzaile moduan hasi naiz. Bigarren entrenatzaile asmoa dut. Klubeko koordinatzaile ere banaiz. Nire zeregina klubeko talde guztiak norabide berean lanean ari direla ziurtatzea da.

**Iazko denboraldira arte jokalaria izan zara. Partiduak ezberdin ikusiko dira ba bankilotik?**

Oso ezberdina da. Jokatzeko ari zarenean dena zaila da. Kantxaren kanpoaldetik ikusita errazagoa dirudi. Gauza askotaz oharitzen zara eta zeure buruari galdetzen diozu, "zergatik ez nuen hau horrela egiten!". Noizbait taldeko jokalaria izateak, kantxan



Nazional mailako taldeak sponsoreraz aldatu du. Orain Bidebide-Ibiza izena hartu du.

daudenek bizi dutenaren irudibat ematen dizu. Niri behintzat jokalarien larruan jartzen laguntzen dit esperientziak. Hala ere oso arraroa egiten zait, lehen taldekide nituenei bronka botatzen jardutea.

**Nolakoa da Bide-bide Ibizako taldea?**

Talde orekatua da. Plantila potentia dugu. Agian orain artean izan ditugun aurkariak ahulak dira,

ez dakit, baina intentsitate aldebat ematen dizu. Bestalde, pozgarria da, 12 jokalarietatik 10 harrobikoak izatea. Nazional mailan, etxeko jokalariek kontatu dezaketen talde gutxi daude. Denborarekin taldekide guztiak etxekoak izatea lortu nahi dugu. Hau motibazio iturria da klubeko gaztetxoentzat, ikusten baitute, saiatzen badira ate guztiak zaba-

lik izango dituztela senior mailako taldean jokatzeko.

**Zein da denboraldi honetako helburua?**

Helburua taldea nazional mailan mantentzea da. Baina lehenengo partiduak jokatu, ikusten dugu igoera fasea jokatzeko saiklapena posible dela. Mailaz igotzea ordea ez dugu gure helburuetan sartzen, hasteko ekonomikoki ez daukagulako EBA ligan jokatzeko baliabiderik. Maila mantentzearekin konformatzen gara, are gehiago etxeko jokalariek jokatzeko dugula jakinda.

**TAKE-ko gainontzeko taldeak zere zere dituzte?**

Denak lan on bategiteko gogo bizia daude. Hori da garrantzitsua. Jubenilek erronka garrantzitsu bat dute aurten, Euskal Herriko ligan sartzea. Kadete eta infantilen kasuan, emaitzek bigarren mailako garrantzia dute. Eurentzat garrantzitsua saskibaloian jokatzeko ikastea da.

**Zeintzuk dira TAKE-n erronka garrantzitsuenak?**

Batetik, nazional mailako taldea hor mantentzea, eta honekin batera, harrobia hazten jarraitzea. Orain arte inoiz ez diogu ezetz esan ume bati eta esperodugu helburu txiki hori mantendu ahal izatea. Gero, gaztetxoak ahalik eta ondoen formatu nahi ditugu. Ea zenbat iristen diren senior mailara. Hor ikusten da entrenatzailearen lana. Zalantzarik gabe, aipatutako hau klubaren erronka handi bat da.

Nesken alorrari eutsiz, maila bakoitzean gutxienez talde bat izatera iritsi nahi dugu. Aurten kadeteak direnak jubencil mailara igaroko dira hurrengo ikasturtean. Eta klubean jarraitzen badute, senior mailan ere nesken taldea osatuko dugu. Behetik hasi beharko dute, baina pixkanaka-pixkanaka mailaz igozten joatea izango litzateke idealena. Hori lortzeko egingo dugu lan.



TAKE-ko familia osoa.

## IKERLANAK IDAZTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA / 2008

**Euskal Herria eta, bereziki, Beterri-Aiztonde eskualdeko historia, gizarte, kultura eta hizkuntzan ikertzen eta ezagutzeko diru laguntza eta hauek idatzizko lanen bidez adierazteko helburua duten ikerketak diruz laguntzeko inoiz egin du Manuel Larramendi Kultur Bazkiriak, jarraian datuztenak direlarik deialdiaren xehetasunak irazteko:**

<p><b>LEHENENA.-</b> Deialdiaren helburua</p> <p>1. Beterri-Aiztonde eskualdeko historia, gizarte, kultura eta hizkuntzan ikertzen eta ezagutzeko diru laguntza eta hauek idatzizko lanen bidez adierazteko helburua duten ikerketak diruz laguntzeko inoiz egin du Manuel Larramendi Kultur Bazkiriak, jarraian datuztenak direlarik deialdiaren xehetasunak irazteko:</p> <p>2. Deialdiaren helburua</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Praktiko-iruzteko ikasgaiak irazteko.</li> <li>• Eskualdeko garrantzitsuenak irazteko.</li> <li>• Auzo-iruzteko ikasgaiak irazteko.</li> </ul> <p>3. Deialdiaren helburua</p> <p>4. Deialdiaren helburua</p>	<p><b>BIGARRENA.-</b> Salakera lanen ezagutzea</p> <p>Salakera lanen ezagutzea eta irazteko diru laguntza eta hauek idatzizko lanen bidez adierazteko helburua duten ikerketak diruz laguntzeko inoiz egin du Manuel Larramendi Kultur Bazkiriak, jarraian datuztenak direlarik deialdiaren xehetasunak irazteko:</p> <p>5. Deialdiaren helburua</p> <p>6. Deialdiaren helburua</p>	<p><b>BOSTGARRENA.-</b> Eskualdeko iruzteak</p> <p>7. Deialdiaren helburua</p> <p>8. Deialdiaren helburua</p> <p>9. Deialdiaren helburua</p>
<p><b>HIRUGARRENA.-</b> Diru laguntzak</p> <p>10. Deialdiaren helburua</p> <p>11. Deialdiaren helburua</p>	<p><b>ZAZPIGARRENA.-</b> Salakera lanen ezagutzea</p> <p>12. Deialdiaren helburua</p> <p>13. Deialdiaren helburua</p>	<p>14. Deialdiaren helburua</p> <p>15. Deialdiaren helburua</p> <p>16. Deialdiaren helburua</p>

**Eskura itzazu deialdiaren xehetasunak**  
duten oinarrien eskutik  
943 696 456 edo 943 300 733  
webgutietan deialdiaren xehetasunak  
bidez betorri@alumni.com

# Azaroaren 7tik 21era arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

» Azaroaren 8ra arte: Jose Luis Urdapilletaren argazki erakusketa.

» Azaroaren 15era arte: Vanessa Alzate-ren pintura, eskultura, grabatu eta "collage" erakusketa.

### HERNIALDEKO OSTATUA

» Azaroaren 10era arte: Ander Gilenea eta Josune Martinez de Albeniz-en argazki erakusketa.

## MUSIKA

### LEIDOR

» Azaroak 8: Kroke taldeak eskainita, Seventh Trip kontzertua Mundua Tolosan zikloaren baitan. 20:30ean.

### BONBERENEA

» Azaroak 15: Dikers eta Raizdx taldeen kontzertuak 20:30etatik aurrera.

### BEOTIBAR

» Azaroak 15: Trikujai diskojaia 22:00etatik 05:00ak arte.

## IKUSKIZUNAK

### LEIDOR

» Azaroak 14: Algara antzerki taldearen

eskutik, **Un hombre de rojo** antzezlan Minbizia Elkartearen alde, 22:00etan.

» Azaroak 15: Bellydance Superstars dantza orientala Mundua Tolosan zikloaren baitan, 20:30ean.

» Azaroak 16: Alurr dantza taldearen SUA ikuskizun berria 19:30ean.



### BONBERENEA

» Azaroak 7: Bat eta Bi antzerki taldearen eskutik, **Un encuentro especial** antzezlan, eta **uyanema** taldeak eskainita, Orden cotidiano obra, 22:30etatik aurrera.

» Azaroak 8: Hernanikoa antzerki taldearen eskutik, **La mochila** antzezlan izango da eta **Escapada en Solitario** taldeak eskainita **En el aire** lana ikusgai.

## ZINE FORUM

### LEIDOR

» Azaroak 13: **La tentacion vive arriba** filma, 19:15 eta 21:45ean.

» Azaroak 20: **Tiro en la cabeza** filma, 19:15 eta 21:45ean.

## ZINEMA

### LEIDOR

» Azaroak 7: Vicky Cristina Barcelona filma 22:30ean.

» Azaroak 9: **Basoko izpiritua** haurrentzako filma 17:00etan. Vicky Cristina Barcelona filma 19:30ean eta 22:00etan.

» Azaroak 10: Vicky Cristina Barcelona filma 22:00etan.

## ALEGIAN UDAZKENEAN KULTURA

» Azaroak 9: Gynkana Languarre txirindularitza elkarteak antolatuta Larraitz auzoko plazan 11:00etan.

» Azaroak 12: Alegia barne baretik dvda-ren aurkezpena Kultur Etxean 19:00etan.

» Azaroak 14: 1,2,3...**Inaxito** haurrentzako antzezlanaren 3. partea Kultur Etxean 17:30ean.

» Azaroak 16: Txintxarri eguna.

» Azaroak 17, 18, 19 eta 20: 2008ko herriko festak argazki proiektzioa Alegiako argazki taldearen eskutik Kultur Etxean, 18:00etatik, 20:00etara.

» Azaroak 20: Ipuin kontaketa liburutegian 18:00etan.

## IKAZTEGIETAKO UDAZKEN KULTURALA

» Azaroak 7: 17:00; Kiroldegian, **Magia** teilatuetan haurrentzako antzezlan Txalo konpainiaren eskutik. 21:00; Kiroldegian, drogak larru-gorritan hitzaldia, 12 eta 25 urte arteko gazteentzat.



- Azaroak 14: 21:30; Kiroldegian, **Bob, nor da Bob?** helduentzako bakarriketa Jon Urrazaren eskutik.

- Azaroak 16: 11:00; Ikaztegietakoko herri kro-sa Herrigintza elkarteak antolatuta.

- Azaroak 21: 21:30; Herriko ostatuan, **Ikaztegieta kantuz** kontzertua.

- Azaroak 22: 19:00; Gaztain eta talo jatea.

## MOTZEAN

### Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunak, hunkigarriak

El Caserio Zarzuelan euren doainak erakutsi eta gero, Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunak, hunkigarriak. El Caserio Zarzuelan euren doainak erakutsi eta gero, Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunak, hunkigarriak. El Caserio Zarzuelan euren doainak erakutsi eta gero, Tolosako Orfeoien 10. urteurreneko ospakizunak, hunkigarriak.

Hamargarren urteurrena probestu dute, hamar urte hauetan Orfeoien alde lan egin duten zenbait pertsona omentzeko ere. Bazkalostean, Ignacio Ruiz de Alegria zuzendariari eta horrenbeste ahalegin egindako Mikel Telleriari Orfeoien historia laburbiltzen duen DVDa eman zieten.

Bazkarian, orfeoiko kideak, lagunak ea kolaboratzaileak ez ezik, Tolosako alkatea eta jada Orfeoiko partaide bilakatu den Ainhoa Arteta egon ziren. Guzti hauekin batera, denek ezusteko, Migel Indurain txirindulari ohia ere bertan izan zen.

Eguna ederra baina batez ere hunkigarria izan zela azaldu dute Tolosako Orfeoitik. Zorionak denei!



## Guardiako farmaziak

### AZAROA

<b>Ostirala, 7</b>	Morant R.(Zabalaretza, 1) Tolosa
<b>Larunata, 8</b>	Echeveste (Gemikako arbola, 3) Tolosa
<b>Igandea, 9</b>	Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
<b>Astelehena, 10</b>	Olareaga J.(korreo kalea, 2) Tolosa
<b>Asteartea, 11</b>	Santamaria I.(Nafarroa etorb.2) Tolosa
<b>Asteazkena, 12</b>	Morant R.(Zabalaretza, 1) Tolosa
<b>Osteguna, 13</b>	Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
<b>Ostirala, 14</b>	Ugartte M.T (Euskal Herria,46) Ibarra
<b>Larunata, 15</b>	Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
<b>Igandea, 16</b>	Olareaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
<b>Astelehena, 17</b>	Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa
<b>Asteartea, 18</b>	Echeveste (Gemikako arbola, 3) Tolosa
<b>Asteazkena, 19</b>	Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
<b>Osteguna, 20</b>	Olareaga J.(korreo kalea, 2) Tolosa
<b>Ostirala, 21</b>	Santamaria I.(Nafarroa etorb.2) Tolosa

## Telefono interesgarriak

<b>Alegia-Amezketza-Albartzisketa-Albixtur</b>	Osasun zentroa: 943 653 212
<b>Altzo</b>	Medikua: 943 654 737
<b>Anoeta-Alkiza-Hernialde</b>	Medikua: 943 652 339
<b>Baliarrain</b>	Medikua: 943 889 003 (asteazk.)
<b>Berastegi-Elduain</b>	Medikua: 943 683 361
<b>Bidegoian</b>	Medikua: 943 681 134
<b>Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu</b>	Osasun etxea: 943 672 411
<b>Ikaztegieta</b>	Medikua: 943 653 329
<b>Irura</b>	Osasun zentroa: 943 690 720
<b>Tolosa</b>	Arbulatorioa, larrialdiak: 943 650 931
	San Esteban, hitzordua: 943 006 800
	Gemikako Arbola hitzordua: 943 006 900
	Amarozko dispensarioa: 943 672 637
	Asunzion klinika: 943 675 799
	(larrialdiak): 943 675 390
	San Kosme San Damian
	geriatrikoa: 943 672 932
	Udaltzaingoa: 943 675 858
	Ur eta Argia (Tolargi): 943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberriak): 639 352 156
	lurreamendi egoitza: 943 670 325
	Larrialdiak, Suhiltzaileak: 112
	DYA: 943 672 536
	Gurutze Gorria: 943 674 888
	: 943 651 425
	Entzaintza: 943 673 022
	Tolosa Gasa: 943 675 320
<b>Lizartza</b>	Medikua: 943 682 077
<b>Orendain</b>	Medikua: 943 655 595
<b>Orexa</b>	Medikua: 943 682 228

**KEYPLAN**  
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erositara beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia Donostia Tolosa  
San Martin, 16 Garibai, 8 Rondilla, 11  
943 425 886 943 420 259 943 670 615  
943 420 187 943 430 947 943 671 149

**Arteka**  
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577

**TINDATEGIA**  
**KAIZ**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**kutxa**

**ITURRALDE**  
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa  
Tel.: 943 655 865

ARTESANIA  
**ZUEN TZART**  
eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA  
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET  
TEL.: 943 650 359

**JARRI ZURE PUBLIZITATEA**  
943 655 004

URDAIKARIAK  
**Altuna**  
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu-  
-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

## LANA

Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**

Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzea. **671 44 66 15**

Sukalde laguntzaile edo plater garbiketarako lan bila nabil. **671 44 66 15**

## ETXEBIZITZA

Etxebizitza salgai Alegian. 65 m<sup>2</sup>. 168.000 euro. **629 52 51 50.**

Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

Ikasle bat, pisu bat konpartitzeko beste ikasleen bila dabil. **627834993.**

Garaje bat alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

## ALOKAIRUA

Tolosako Iparragirre auzoan 34 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Argitsua eta egonera onean. **645 710 789.**

## SALGAI

Kotxe bat salgai BMW 330 D full equipen 18.000 euro. **629 52 51 50.**

Kotxe bat salgai Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669.**

Artzai txakurra salgai 617 863 669

## HOROSKOPOA

AZAROAREN 7TIK 21ERA ARTEKO AURREIKUSPENA

## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Okulistarenean txanda hartu beharko zenuke. Betaurreko batzuk behar dituzu agian. Honek ez du zertan albiste txarra izan behar. Horrela itxura fisikoa ere aldatuko zenuke.

## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Hobe izango da gauzak argi uzten badituzu. Gaizkiulertuak garesti ordainduko dituzu bestela. Ez izan beldurrik eta azaldu lasai zure iritzia.

## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Udazkeneko euriak nostalgiko jartzen zaitu eta triste antzean zabilta. Kalera ateratzeko girorik ere ez du egiten... Zinemak animatu egingo zaitu, eta hausnarketa interesgarrietarako ateak zabalduko dizkizu.

## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Zure zeinuaren izarra inoiz baino dizdiratsuago dago. Gaueko izarrak dizdizariena izango zara, gaueko erregina. Erakargarri ikusiko zaituzte. Garai onak dira pertsona berriak ezagutzeko.

## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Asteguna eta asteburua bereizi behar dituzu. Lehen lanerako da eta bigarren atsedean hartzeko. Lan eta lan, zeurre burua bakartzen ari zara konturatu gabe. Erlazionatu zaitetz!

## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Denbora gehiegi ematen duzu lanez gainezka zaudela eta kezkatzen. Kezkatzen zaren erdia kezkatuko bazina onezkeroko gehientsuena egina zenuke!

## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Esperientzia berriak bizitzeak biziberri egingo zaitu. Baduzu premia, errutinak itoko zaitu bestela. Etxean nazkatuta daude zure purrustadekin. Ez zara zu arazoak dituen bakarra.

## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Euriborrak estu hartu zaitu. Lan erretan bat egiteko betarik ez duzu ordea. Gastuak murriztea da bidea. Zergatik ez duzu tabako dosia jaisten?

## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Hotz somatzen duzu eta ez zara zer gertatzen zaion galdetzeraz ausartzen. Arreta falta du. Aspaldian ez duzu tarte gehiegi hartzen berarekin egoteko.

## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Hotzak eta euriak errepideak diren baino arriskuetsuago bilakatzen ditu. Txiki-keria dirudi, baina zure autoko gurpilak aldatu beharko zenituzke. Ez beharretarako joera izango duzu aste hauetan.

## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Ez al duzu denbora gehiegi pasatzen telebista aurrean? Eskaini denbora gauza erabilgarriagoak egiteari. Esaterako etxea txukundu dezakezu, badu premia!

## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Gaixoaldia errepim�ten ari zara baloia uretan bezala. Baina gaitza azalera ateratzen denean benetan gaizki pasako duzu. Dentistari bisita bat egitea komeni zaizu.



Negu honetan,  
ahaztu hotza.

ESKAINITZA  
PAREGABEA

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturaleraka instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).

+

**KREDIGAS**  
finantziario berezia,  
instalazioa hileko kuartu erosotasun  
finantzazko.

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berrak honen inbertsioa 2008ko %5,25ekoa izango da Kredigasi. Gauko tarifa baduzu, eta 65 urtez garatua izatera, 570 € jasoko duzu, hobeekin ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, baina instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 errodadore (45 elementu) parteko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzea, Naturgas Energia Comercializadorea, SAIInekin hominuntza eta egin behar da dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
www.naturgasenergia.com

**naturgas  
energia**



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

**TOYOTA** MUNDUKO LEHEN AUTO-EKOIZLEA BADA,  
ETA GAINERA KALITATEAN ETA IRAUNKORTASUNEAN LIDERRAK...

KOTXEZ ALDATZEKO  
ASMOA DUZU, AURRETIK

**TOYOTA** -TIK PASATU  
GABE?



**AURREZTU**  
ITZAZU **5.000€**  
HILABETE HONETAKO  
PROMOZIOEKIN

Baliatu gure  
stock likidazioaz.  
**AZKEN UNITATEAK!**

AVENSIS SEDAN 1.8	4 Unitate
AURIS 1.4	3 Unitate
COROLLA VERSO	2 Unitate



TODAY TOMORROW **TOYOTA**

### EuskoAuto

- ▶ **OLABERRIA:** Iurre auzoa, Karobi poligonoa.  
Tel.: 943 805 926
- ▶ **BERGARA:** Olabarrena z/b.  
Tel.: 943 762 385
- ▶ **ELGOIBAR:** Olaso poligonoa, 25.  
Tel.: 943 747 417
- ▶ **PASAIA:** San Markos errepidea, 32.  
Tel.: 902 345 245

### GEHIAGO NAHI AL DUZU?

- **TOYOTA AUKERA.** 2 edo 3 urte dituzu autoa zuretzako izatea nahi duzun, aldatu nahi duzun, edo itzuli nahi duzun erabakitzeko.
- **TOYOTA CREDIT.** Lehentasunezko baldintzekin finantzazioa.
- **TOYOTA LEASING - RENTING.**
- **TOYOTA ASEGURUAK.**

[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)